

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea



Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación

KAZETARITZA GRADUA

IKASTURTEA 2015-2016

EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN GUAIXE ASTEKARIAK DUEN ERAGINA SAKANAKO BAILARAN

EGILEA: EÑAUT AGIRREBENGOA APAOLAZA
ZUZENDARIA: ELIXABETE LARRINAGA ARTETXE

Data: 2016eko ekainaren 6a

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	4
1.1 Lanaren aurkezpena	4
1.2 Ikerketaren helburuak	5
1.3 Iker-galderak eta lan-hipotesiak	6
2. MARKO TEORIKOA.....	7
2.1 Euskarazko komunikabideak	7
2.1.1 Euskarazko komunikabideen ibilbidea 1975tik aurrera	8
2.1.2 Euskarazko komunikabideak gaur egun.....	10
2.1.3 Etorkizunerako jarraibideak	13
2.2 Euskarazko idatzizko tokian tokiko hedabideak.....	13
2.2.1 Euskarazko tokiko prentsaren aurrekariak eta garapena	14
2.2.2 Euskarazko prentsa lokalaren ezaugarriak eta funtzioak.....	16
2.2.3 Etorkizunerantz eman beharreko urratsak.....	19
2.3 Euskararen normalizazioa.....	20
2.3.1 Zer da euskararen normalizazioa?	20
2.3.2 Euskararen egoera Sakanan.....	22
2.3.3 Euskararen normalizazioa eta diru-laguntzak.....	22
2.4 Euskarazko tokiko hedabideen eragina hizkuntza-normalizazioan	24
2.4.1 Euskarazko tokiko hedabideen kalitatea: euskara maila lehentasun	25
2.4.2 Tokiko prentsa eta euskara: batua edo euskalkiak?.....	26
3. METODOLOGIA.....	26
3.1 Lehen urratsa: <i>Guaixeko</i> erredaktore buruari elkarrizketa	27
3.2 Bigarren urratsa: Itsasi euskaltegiko bi irakasleri elkarrizketa	27
3.3 Hirugarren urratsa: Aztikerrek <i>Guaixeren</i> inguruan egindako inkestaren azterketa... 28	
3.4 Laugarren urratsa: <i>Guaixeren</i> bazkideei zuzenduriko inkesta	29
4. IKERKETAREN EMAITZAK.....	31
4.1 Alfredo Alvaro: “Euskara sustatzeko helburua hasiera hasieratik dago <i>Guaixeren</i> DNAn txertaturik”	31
4.2 Idoia Artieda eta Patxi Flores: “Ikasleak euskaraz irakurtzera ohitzeko erabiltzen dugu <i>Guaixe</i> ”	33
4.3 <i>Guaixe-Beleixe</i> . Irakurleak eta iritziak, 2011 (Aztiker).....	35
4.3.1 <i>Guaixeren</i> ezagutza eta irakurtzeko ohitura	35
4.3.2 <i>Guaixeren</i> sarbidea	36

4.3.3 <i>Guaixeren</i> irakurleen profila.....	37
4.3.4 <i>Guaixeri</i> buruzko iritzi orokorrak.....	39
4.4 <i>Guaixeren</i> bazkideen profila eta iritziak, 2016.....	41
4.4.1 <i>Guaixeren</i> bazkideen profila.....	41
4.4.2 <i>Guaixeren</i> bazkideen hedabide kontsumoa	43
4.4.3 Bazkideek <i>Guaixeren</i> hainbat alderdiren inguruan duten iritzia	46
5. ONDORIOAK	50
BIBLIOGRAFIA	53
ERANSKINAK	54
Kronograma	54
<i>Guaixeko</i> erredaktore buru Alfredo Alvarori eginiko elkarrizketa.....	55
Itsasi euskaltegiko irakasle Patxi Flores eta Idoia Artiedari eginiko elkarrizketa	58
Bazkideen inkestaren galdera-sorta	61
Inkosten taulak.....	66

1. SARRERA

1.1 Lanaren aurkezpena

Ikerketa hau egiteko prozesua iragan urrian hasi zen, Gradu Amaierako Lanaren gai legez *euskarazko tokian tokiko idatzizko hedabideak eta hizkuntza-normalizazioa* esleitu zitzaidanean. Berau zen lana egiteko gai posibleen zerrendan lehen postuan kokatu nuena, beraz, motibazio handiz heldu nion gaia jorratzeari. Lanaren planteamendua argi eta garbi neukan: ikerketa lan bat egin nahi nuen, tokiko hedabide jakin batek bere hedapen eremuan euskara normalizatzerako garaian duen eraginari buruzkoa. Zergatik? Bada, alde batetik, lan mota hau (ikerketa) delako aukeran nituen lan mota desberdinen artean gehien erakartzen nauena, bai metodologia aldetik, baita funtzionamendu aldetik ere; eta bestetik, uste dudalako ez dagoela jite horretako ikerketa askorik tokiko komunikabideen esparruan. Alegia, gutxi dira tokiko hedabide konkretu batek euskararen normalizazioan duen eragina propio neurtzen duten ikerketak. Beraz, hutsune hori zela-eta esleitu zitzaidan gaia ikuspegi horretatik jorratzea deliberatu nuen.

Behin hasierako planteamendua erabakita, aztergaia finkatzeari ekin nion. Eta kasu honetan ere ez nuen denbora askorik eman behar izan erabakia hartzeko: ikerketaren aztergai legez Sakanako *Guaixe* astekaria aukeratu nuen. Bi zio nagusigatik hartu nuen erabaki hau: sakandarra naizelako, eta *Guaixen* lanean dihardudalako. 2014ko udan ekin nion bertan erredakzio-laguntzaile lanak egiteari, eta gaur egun ere horretan nabil. Beraz, *Guaixere*kiko dudak hurbiltasun eta ezagutza tarteko, uste dut berau dela ikerketa hau egiteko aztergai aproposena. Dezenteko material kantitatea dut eskura, eta zerbait behar izan ezkererako iturri pertsonal zein dokumentalak bertan ditut, etxe ondoan. Egoera hori izaki, beste leku bateko tokiko hedabide bat aztertzea ez zitzaidan burutik pasa ere egin. Hasiera hasieratik begirada *Guaixen* paratu nuen, aipatu zioak direla eta.

Hedabide honen ibilbidea labur azaltzearren, lehenik eta behin esan behar da 2004az geroztik dabilela ekinen, astero-astero Sakanan gertatzen den guztiaren berri ematen. Dena den, proiektu komunikatiboa ez zen orduan eratu, hamar urte lehenago baizik, 1994an Euskal Herriko Unibertsitateko hiru ikasle sakandarrek hilabetekari bat sortu zuenean, hura ere *Guaixe* izenekoa. Urte haietan euskarazko tokiko komunikabideen *booma* ari zen jazozen, eta hiru ikasle horiek Sakana olatu horretara batzea erabaki zuten. Horrela, Sakanako euskaldunak bailarako albisteak euskaraz jasotzen hasi ziren. Bi xede nagusi zituen *Guaixek* hastapen haietan: Sakana bailara bezala kohesionatzea, eta euskararen presentzia areagotzea. Gaur egun ere helburu horiek indarrean darraite.

Gauzak horrela, hurrengo urteetan proiektua garatuz joan zen. Lehenik eta behin *Beleixe* euskara hutsezko irratia sortu zuten (gaur egun saio bakarra eskaintzen du, ostiral goizetan), eta ondoren, 2001ean, hilabetekariarekin batera *Oixe* izeneko astekaria argitaratzeari ekin zioten.

Izan ere, ikusi zuten hilabetekari formatuarekin albiste asko zaharkiturik gelditzen zirela. Horrela, bada, hiru urtez Sakanak hilabetekaria eta astekaria izan zituen, 2004an proiektua birdefinitu, eta bi argitalpenak fusionatu zituzten arte. Hilabetekaria eta astekaria egiteko nahikoa baliabide eta gai zeuden, beraz, bi argitalpen argitaratu beharrean astekari indartsuago bat eratzea deliberatu zuen, orri gehiago izango zituena eta, halaber, gaiak sakontasun handiagoz jorratzeko aukera emango zuena. Horrela sortu zen *Guaixe* astekaria.

Egungo egoerari erreparatuta, 2012az geroztik astekaria nahiko egoera zailean dagoela esan behar da. Urte hartan Nafarroako Gobernuak euskarazko hedabideei eginiko murrizketek gogor kolpatu zuten *Guaixe*, eta horren ondorioz lan-taldea 12 lagunetik 8 lagunera murriztu behar izan zuten. Egoera hartan, astekariaren dohako izaera bertan behera utzi, eta formula berria ezarri zuten: astekaria soilik bazkideek jasoko zuten, urtean 50 euro ordainduta. Dena den, estrategia komertziala aldatuagatik ez zuten burua guztiz altxatzerik lortu. Egun ere diru falta da beren buruhauste nagusia, urteko balantzeak koadratzeko nahiko lan izaten baitute. Edonola ere, bizirik dagoen komunikabidea dugu *Guaixe*: 3.200 ale inguruko tirada dauka, CIESen azken datuen arabera (2012koak dira) 14.000 irakurle ditu bailaran, eta kalitatezko produktu bat eskaintzen du, hainbat arlotako (gizartea, politika, kirola, kultura...) gai eta gertaerak formatu ezberdinetan (albisteak, erreportajeak, elkarrizketa motz zein luzeak...) jorratzen dituen.

1.2 Ikerketaren helburuak

Lan honen xede nagusia Sakana mailan *Guaixek* euskararen normalizazioan duen eragina aztertzea eta lorturiko emaitzen ondorioak aurkeztea da. *Guaixe* bere hedapen eremuan oso erroturik dagoen komunikabidea da, 20.000 biztanle inguru dituen Sakanan 14.000 irakurle baititu. Hau da, Sakanako biztanleen %70ak irakurtzen du *Guaixe*. Ehuneko oso altua da, *Guaixek* urte hauetan guztietan bailaran sustrai sakonak bota dituela agerian uzten duena. Sakanako gaiak eta gertaerak preseski jorratzen dituen hedabide bakarra da (*Diario de Noticias*ek lantzean behin artikuluren bat edo beste argitaratzen du, baina ez da inondik inora Sakanako gaurkotasuna jorratzea helburu duen komunikabide bat), eta horrek bailaran eragin handia duen hedabidea izatea dakarkio.

Irakurle kopuru altu horretatik ondoriozta genezake *Guaixe* tresna oso baliagarria dela euskararen normalizaziorako. Izan ere, euskara hutsean argitaraturiko astekaria izaki, astero euskara sartzten du makina bat sakandarren etxeetan. Alabaina, irakurle kopuruaz landa beste zenbait aldagai ere kontuan hartu behar dira komunikabide batek euskararen normalizazioan eragina duela esateko: euskara ez dakien jendea euskarara hurbiltzen duen, euskaraz irakurtzeko zaletasuna pizteko gaitasuna duen, euskara irakurterraza eta erakargarria darabilen... Gauzak horrela, orain arte ez da egin aldagai horiek guztiak kontuan hartu eta *Guaixe* euskararen presentzia bermatzeko lanabes eraginkorra dela frogatzen eta ziurtatzen duen ikerketarik. Aztergai honen inguruan hainbat ikerketa egin dira orain arte (horietako bat Aztikerrek 2011an eginikoa, ikerketa honetarako material legez erabili dudana), baina horietako nehork ez du

propio landu hedabide honek euskara sustatzerakoan duen eragina. Hori horrela, ikerketa honen xedea aipatu aldagaiak eta beste zenbait kontuan hartuta *Guaixe* euskara hedatzeko tresna eraginkorra ote den aztertzea da.

Hori da ikerketaren jomuga nagusia, baina ez bakarria. Izan ere, lan honek beste zenbait helburu ere baditu, nahiz eta bigarren mailakoak izan. Esaterako, ondoren metodologian luze eta zabal azalduko dudanez, ikerketarako behar dudan materiala lortzeko aplikatuko dudan metodoetako bat *Guaixeren* bazkideei inkesta egitea da, eta honen bidez, xede nagusia betetzeaz landa, astekariaren bazkideen profila ezagutzea bilatuko dut. Hots, zer ezaugarri soziodemografiko eta soziolinguistiko dituzten, zer hedabide kontsumitzen dituzten, *Guaixeren* inguruan zer iritzi duten... zehaztea. Informazio guzti hori astekariarentzat oso baliagarria izango dela uste dut, batik bat zer aldatu eta zer mantendu beharko luketen jakiteko eta, halaber, bazkide berriak erakartzeko estrategiak taxutzeko.

Bestalde, lan honen beste xedeetako bat orokorrean tokiko hedabideek euskararen normalizazioan duten eragina azaltzea da. Helburu hau marko teorikoari dagokio. Horretarako gaiaren inguruan idatzi diren lanak erabiliko ditut. Dena den, esan behar da tokiko hedabideen inguruan asko idatzi dela 80ko hamarkada amaierako eta 90eko hamarkada hasierako loraldiaz geroztik, baina ez direla asko espreski aipatu gaian zentratzen diren lanak (salbuespenetako bat Idoia Camachoren tesia dugu, *Herri aldizkarien funtzioa euskara normaltzeko prozesuan (1989-1999)* izenekoa). Horrela bada, komunikabide lokalek euskara sustatzeko duten eraginean zentratzen diren artikuluez gain, gai hori aipatzen duten beste zenbait artikulua ere erabiliko ditut. Horiekin guztiekin komunikabide lokalek euskara sustatzeko lanean duten eragina azaltzen saiatuko naiz. Edozelan ere, hori ez da marko teorikoaren helburu bakarria: bestelako atal batzuk ere jorratuko ditut, besteak beste, euskarazko komunikabideen egoera orokorraren ingurukoa eta idatzizko tokiko hedabideei zuzendurikoa.

1.3 Iker-galderak eta lan-hipotesiak

Honakoak dira ikerketari begira zehaztu ditudan lan-hipotesiak:

- a) *Guaixeren* helburuen artean garrantzitsuenetariko bat da euskararen normalizazioan eragitea. Hala izan zen bere hastapenetan, eta hala da gaur egun ere. (H1)
- b) *Guaixek* bestelako euskarazko produktuak irakurtzeko akuilu lana egiten du. Horretarako euskara ulertteraza eta gertukoa erabiltzen du, euskaraz irakurtzea atsegina suerta dakion irakurleri. (H2)
- c) *Guaixeri* esker erdaldunak euskararen munduak barneratzen dira. Aldizkariari esker euskara gertuagoko zerbait bezala ikusten dute. (H3)
- d) *Guaixe* ondo baloratzeko hainbat arrazoi daude. Horien artean nagusietako bat euskararen alde lan egitea da. (H4)

- e) Guaixeren irakurleek euskarazko komunikabideak kontsumitzeko ohitura gutxi dute. (H5)
- f) *Guaixe* komunikabide plural bezala hartua da. Alegia, ez da uste alderdi jakin baten alde egiten duenik. (H6)
- g) *Guaixeren* hartzeileek oso ondo baloratzen dute *Guaixe* orokorrean eta astekariak euskara sustatzeko egiten duen ekarpena. (H7)

Gauzak horrela, lan-hipotesi indibidual horiekin honako hipotesi orokorra osatu dut: **Guaixeren helburu nagusietako bat Sakanan euskara sustatzea da. Eta eginkizuna ondo betetzen duela esan daiteke, Sakanan eragin handia baitauka euskararen normalizazioari dagokionez. Besteak beste, euskaraz irakurtzeko zaletasuna pizten du, eta hartzaileen artean erdaldun asko dituenek, hauek euskarara hurbiltzeko balio du. Irakurleek lan hori aitortu egiten diote *Guaixeri*: aldizkaria ongi baloratzeko arrazoi nagusietako bat bezala jotzen dute euskararen alde egiten duen lana. (HO-Hipotesi Orokorra)**

Bestalde, lan-hipotesiak egiaztatzeko ondoko iker-galderak planteatu ditut:

- a) Euskara sustatzea eta euskararen normalizazioan eragitea *Guaixeren* helburuen artean dago? (H1 egiaztatzeko)
- b) *Guaixek* euskaraz irakurtzeko zaletasuna pizten du? Euskara ulertterraza eta gertukoa darabil? (H2 egiaztatzeko)
- c) Erdaldunak euskarara gerturatzen ditu? (H3 egiaztatzeko)
- d) *Guaixe* ondo baloratzeko arrazoiaren artean dago euskararen alde lan egitea? (H4 egiaztatzeko)
- e) *Guaixeren* irakurleek bestelako euskarazko komunikabideak kontsumitzen dituzte? (H5 egiaztatzeko)
- f) Kontsumitzaileek *Guaixe* hedabide plural moduan ikusten dute? Edo alderdi politiko jakin baten alde egiten duela uste dute? (H6 egiaztatzeko)
- g) Nola baloratzen dute hartzaileek *Guaixe*? Eta astekariak euskara sustatzeko egiten duen ekarpena? Zerbait hobetu beharko lukeela uste dute? Zer? (H7 egiaztatzeko)

2. MARKO TEORIKOA

2.1 Euskarazko komunikabideak

Helburuen atalean azaldu dudanez, ikerketa honen marko teorikoaren xede nagusietako bat euskarazko tokiko hedabideek hizkuntza normalizazioan duten eragina azaltzea da. Nolanahi, horri heldu baino lehen egokia deritzot gaia testuinguruan kokatzeari. Horretarako, lehenik eta behin euskarazko komunikabideen zenbait kontu orokorri helduko diot, besteak beste, beren ibilbideari (batik bat 70eko hamarkadako azken urteetan eta 80eko hamarkadan zentratuko naiz), egungo egoerari eta etorkizunerako dituzten erronkei aipamen eginez. Izan ere, tokiko

hedabideak ez dira fenomeno isolatu bat, mugimendu zabalago baten parte dira; euskarazko komunikabideen parte, hain zuzen.

2.1.1 Euskarazko komunikabideen ibilbidea 1975tik aurrera

Euskarazko komunikabideek ibilbide gorabeheratsua izan dute azken 40 urteetan. Lehenik eta behin, aipatu behar da frankismo garaian euskarazko kazetaritza ilunpean izan zela guztiz, klandestinitatean edota erbestean aritzera kondenatuta. Alabaina, diktaduraren azken urteetan euskara lekua egiten hasi zen, bai hezkuntzan, eta baita komunikabideetan ere. Trantsizio urteetan *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* nabarmendu ziren euskarazko hedabideen panoraman. Bi hauek ordura arte izan zuten izaera erlijiosoa alde batera utzi, eta ezker abertzalearekin loturiko ildo editorialak hartu zituzten. Hauekin batera, informazio orokorreko beste zenbait agerkari ere nabarmendu ziren, *Goiz Argi* eta *Zehatz*, kasurako. Garai hartako euskarazko komunikabide gehienek bi ezaugarri zituzten amankomunean: jatorri erlijiosoa zuten, eta ezker abertzalearengandik gertu zeuden.

Dena den, urte haietan euskara hutsean jardungo zuen egunkari bat sortzea oso urruneko zerbait bezala ikusten zen. Euskara *Deia* eta *Egin* egunkari elebidunen bidez sartu zen eguneroko prentsaren esparruan. Biak egunkari abertzaleak, bakoitzak proiektu ezberdinak defendatzen zituen: lehena EAJren aldekoa zen, besteak Herri Batasunaren alde egiten zuen bitartean. Esan bezala, biak ala biak euskara erabiltzen hasi ziren, baina kopuru oso eskasean. *Deiak* nekez eskaintzen zituen bere testuen %5 euskaraz, eta *Eginen* kasuan ehuneko hori %10 ingurukoa izaten zen. Hortaz, euskarak apenas zeukan presentziarik eguneroko prentsaren sektorean.

Gauzak horrela, 80ko hamarkada hasieran euskarazko prentsa krisialdian sartu zen. *Zeruko Argiaren* jabeak ziren kaputxinoek enpresa uztea deliberatu zuten 1979an. Horren aurrean, langileek kooperatiba bat eratu zuten, eta 1980ko urriaren 2an aldizkari eraberritua kaleratu zuten, *Argia* izeneko. Zorte dezente okerragoa izan zuen *Anaitasunak*, arazo ekonomikoaren ondorioz 1983an ateak itxi behar izan zituenean. Bertako kazetari gehienak *Argiara* mugitu ziren. Javier Diaz Noci-k *Los medios de comunicación y la normalización del euskera: balance de dieciseis años* lanean aipatzen duenez, “urte haietan euskarazko prentsa oso gaixo zegoen. Demokrazia aurreko aldarrikapen esparrua galduta, eta tentsio politiko handiko testuinguru batean, euskarazko aldizkariak posizio inobilistak hartu zituzten. Ezker abertzalerantz geroz eta gehiago lerratu ahala, irakurleak galduz joan ziren” (Diaz Noci, 1998: 446). Egoera horretan, soilik *Argiak* izan zuen bizirauteko gaitasuna.

Aldizkarietan baino, instituzioek (Eusko Jaurlaritza 1979an jarri zen berriz ere abian, Gernikako Estatutua onartua izan ostean) nahiago izan zuten diru-publikoa euskal irrati-telebista publikoa sortzeko proiektuan inbertitu. Horrela, bada, 1982an orduko lehendakari Carlos Garaikoetxeak 5/1982 legea sinatu zuen, Euskal Irrati Telebista (EITB) izeneko entitatea eratu zuena. Hasiera hartan esan zen komunikazio talde honen helburu nagusia euskara eta euskal kultura hedatzea izango zela, eta horretarako edukiak euskara hutsez eskainiko zituela. Hala egiten zuten *ETB1*

telebista kateak eta *Euskadi Irratia* irratiak. Alabaina, berehala *ETB2* telebista katea sortu zuten, erdara hutsez ziharduen (eta egun ere diharduen) komunikabide bat. Horrek, Diaz Nociren ustetan zera esan nahi du, “Jaurlaritzak interes politiko eta komertzialak lehenetsi zituela” (1998: 448), euskara sustatzeko lanaren gaineratik.

Egoera horretan, euskarazko kazetaritzak euskarazko aldizkariak, eta irrati eta telebista publiko bat zituen, baina oraindik ez zeukan euskara hutsezko egunkaririk. Halako proiektu bat ekimen pribatutik sortzea oso zail ikusten zen. Izan ere, horretan interesa zuten taldeek (izaera abertzalea eta euskaltzalea zutenek) ez zuten nahikoa diru horrelako egitasmo bat aurrera eramateko, eta hasiera batean Jaurlaritzak jarrera uzkurra zeukan halako proiektu bat diruz laguntzeari zegokionez. Alabaina, euskara hutsezko egunkaria sortzeko geroz eta proposamen gehiago zeudela ikusirik, gobernuak jarreraz aldatu, eta diru-laguntza deialdi bat ireki zuen, egunkari itxura izango zuen eta Euskal Herri mailakoa izango zen aldizkari bat sortzeko pronto zeuden enpresak laguntzeko. Horren ondorio bezala, *Deiak Eguna* astekari-egunkaria sortu zuen, eta *Eginek Egunaren* jite berekoa zen *Hemen*. Deialdian zehazten zen betekizunetako bat 10.000 ale saltzea zen; aitzitik, kopuru horretatik oso urruti ibili ziren bi agerkariak: *Hemenek* 3.500 saltzen zituen, eta *Egunak* 2.500. 1990ean amaitu zen bi agerkari hauen ibilbidea.

Gauzak horrela, urte horretan bertan *Egunkaria Sortzen* ekimena abiatu zen, euskarazko egunkari bat sortzeko asmoz. Honen asmoa 8.000 inguruko tirada bat izatea zen, 40.000 irakurle inguru lortzeko. Horren aurrean, gobernuak proiektu publiko bat proposatu zuen, *Egunkaria Sortzenek* zioen bezala 40.000 irakurle lor zitezkeela defendatzen zuena. Asmoa egunkari hau EITBren barruan integratzea zen. *Egunero* izeneko prototipoa aurkeztu zuten, baina *Egunkaria Sortzen* aurreratu egin zitzairen. Izan ere, 1990eko abenduaren 6an *Euskaldunon Egunkaria* izeneko euskara hutsezko egunkaria argitaratu zuten.

Egunkaria informazio orokorreko egunkaria zen, Euskal Herri osora egunero banatzen zena. Ezker abertzalerantzko joera ez zuen ezkututzen, baina ez zuen editorialik eskaintzen, euskarazko egunkari bakarra izaki nahiago baitzuen ahalik eta irakurle kopuru handienarengana iristea, soilik pentsatzeko modu jakin bat zutenengana heltzea baino. Egunkari hau 2003 arte aritu zen ekinean. Urte hartako otsailean Juan Del Olmo epaileak *Egunkaria* itxiarazi zuen, ETArek esanetara lan egiten zuela egotzita. Haren oinordekoa urte bereko ekainean sortu zen, *Berría* izenpean.

Bestalde, aipatu beharrekoa da 90eko hamarkada hasieran euskarazko tokiko prentsaren booma gertatu zela. Urte haietan makina bat tokian tokiko agerkari sortu ziren hainbat herri eta eskualdetan. Fenomeno hori geroago azalduko dut, tokiko komunikabideei eskainitako atalean. Halaber, hamarkada horretan informazio espezializatuko hainbat aldizkari agertu ziren nazio mailan, Udako Euskal Unibertsitateak 1990ean sorturiko *Uztaro* edota urte berean sortu zen *Bat: soziolinguistika aldizkaria*, egun Soziolinguistika klusterrak kudeatzen duena. Horiek *Elhuyar* eta *Jakin* bezalako aldizkariak gehitu zitzaizkien. Lehena 1974an sortu zen, Elhuyar fundazioaren eskutik, zientzia eta teknologiaren inguruko gaiak jorratzeko. Egun hiru hilabetean behin

argitaratzen da. *Jakini* dagokionez, hau 1956an agertu zen, Arantzazuko frantziskotarren ekimenez. Hasiera batean gai erlijiosoetan zegoen espezializaturik, eta ondoren hizkuntza eta gizarte gaietara heltzen hasi zen. 1967an zuzendaritza laikoa osatu zen, eta urtebete geroago Joan Mari Torrealdai hartu zuen zuzendari kargua. Horrela, bada, aldizkaria frantziskotarrengandik urrunduz joan zen, 80ko hamarkadan hauengandik emantzipatu arte. Gaur egun kulturaren eta pentsamenduan dago espezializaturik.

2.1.2 Euskarazko komunikabideak gaur egun

Nabarmendu beharrekoa da euskarazko komunikabideek meritu handia dutela, hizkuntza maioritarioak darabiltzaten eta, ondorioz, merkatu askoz ere zabalagoa duten hedabideekin lehiatu behar baitira. Euskarak 800.000 hiztunera iristen ez den hiztun-komunitatea osatzen du, beraz, euskarazko komunikabideek soilik 800.000 pertsonaz osaturiko merkatu batera zuzentzen dituzte beren produktuak. Horrek hainbat arazo sortzen ditu, batik bat komunikabideen errentagarritasunari dagokionez. Izan ere, merkatua oso txikia denez, prentsaren kasuan aleen salmenten bitartez ezin daiteke dirutzarik lortu, eta enpresek publizitatea nahiago dute askoz ere hedadura handiagoa duten erdarazko komunikabideetan jartzea. Zernahi ere, euskarazko komunikabideek oztopo horiei guztiei aurre egin eta euskararen aldeko konpromisoari irmo eusten diote. Izan ere, argi dute euskaraz informazioa jasotzea eskubide bat dela, eta euren eginkizuna dela eskubide hori egikaritzea. Gainera, euskara hizkuntza minorizatu bat izaki, beronen biziraupen eta sustapenerako funtsezkoa da, hezkuntzan presentzia izateaz landa, esparru mediatikoan ere lekua izatea.

Euskarazko kazetaritzaren esparruan egun dauden komunikazio-talde garrantzitsuenei dagokionez, alde batetik EITB taldea dugu, 1982ko maiatzaren 20an sortua. Lehenik eta behin *ETB1*, *Euskadi Irratia*, *Radio Euskadi* eta *Radio Vitoria* sortu zituen, eta ondoren *ETB2* eta *Gaztea* etorri ziren. Uneon sei telebista kate (*ETB1*, *ETB2*, *ETB3*, *ETB4*, *ETB Sat* eta *Canal Vasco* –Amerikarako-) eta bost irrati emisora (*Euskadi Irratia*, *Radio Euskadi*, *Radio Vitoria*, *Gaztea* eta *EITB Musika*) ditu, interneteko atariaz landa. Horiekin guztiekin Euskal Herriko ikus-entzunezko talderik indartsuena eratzen du.

Prentsa idatzi orokorrari dagokionez, bi komunikazio talde nabarmendu behar dira: Berria taldea (leheneago Euskarazko Komunikazio Taldea bezala ezaguna) eta Komunikazio Biziagoa enpresa. Lehenari dagokionez, *Euskaldunon Egunkariaren* itxieraren ostean *Berria* egunkaria sortu zuen, eta egun eskualdeko prentsan ere indartsu dabil, hainbat eskualdetan *Hitza* delakoak ateratzen baititu. Hasiera batean astean 6 egunetan kaleratzen zituen, baina krisi ekonomikoaren ondorioz kaleratze-egunak murriztu egin behar izan zituen. Horiez gain, lurraldekako *Hitzak* ere badaude. Hauek astean behin kaleratzen dira: ostiraletan, *Berriarekin* batera. Gipuzkoa eta Bizkaikoek 16 orri dituzte, eta Nafarroa, Araba eta Iparraldekoek, berriz, 8.

Bestalde, Komunikazio Biziagoak-ek *Argia* aldizkaria argitaratzen du, euskarazko aldizkarien artean ibilbiderik luzeena egin duena dena. Enpresa honek *Argiaz* gain euskal kulturaren

inguruko beste zenbait produktu ere eskaintzen ditu, hala nola, Euskal Kulturaren Urtekaria, egutegi berezia, urteko egun bakoitzarekin batera informazioa eskaintzen duena, edota astekarian jorratzen diren gaiekin lotutako zenbait liburu (azkenaldian ospe handia izan du Jakoba Errekondoren *Bizi baratzea* liburuak). Horrez gain, gaiak egunez egun jorratzea ahalbidetzen dien webgune bat dute, astekari izaera galdu eta egunkari izaera hartzen duena. Horrez gain, webgunean paperezko aleak daude eskuragarri, hemeroteca ederra osatuz.

Hedabide orokorrez landa, euskarazko kazetaritzak tokiko komunikabideak ere baditu. Hauetaz geroxeago solastuko naiz sakonago. Labur aipatzearren, azpimarratzekoa da tokiko komunikabideek garapen handia izan zutela 90eko hamarkadan, eta egun asko egoera zailean dauden arren, kopuruz bederen euskarazko komunikabideen esparrua oparoa dela esan daiteke. Esparru honetan formula desberdinak daude indarrean, esaterako: multimedio-taldeak, hots, euskarri ezberdineko hedabideak dituztenak (Goiena dugu formula honen adibiderik onena); monomedio-kateak, alegia, mota bereko komunikabideak katean lotzen dituen ereduak; edota multizerbitzu-ereduak, zeinetan komunikazio enpresa batek, komunikabideak ekoizteaz landa, bestelako zerbitzuak ere eskaintzen dituen (adibidez, Bilboko Zenbat Gara? elkarteak *Bilbo Hiria irratia*, Kafe Antzokia eta euskaltegia barnebiltzen ditu).

Egungo egoeraren errebasoarekin amaitzeko, aipatzekoa da 2012az geroztik euskarazko hainbat hedabide biltzen dituen elkarte bat dagoela: Hekimen. Sektorearen egoera makurra zela-eta, 2010ean euskara hutsezko zenbait komunikabide harremanetan jarri ziren, konponbide posibleak aztertzeko. Gauzak horrela, denborak aurrera egin ahala elkarlana sendotzen joan ziren Gipuzkoako Aldundiaren “Gipuzkoa Berritzen” programaren baitan, eta azkenean Hekimen sortzea deliberatu zuten. Honen helburuak, besteak beste, euskara hutsezko hedabideen arteko lankidetzaz bideratzea, euskararen hiztun komunitatearen eremu komunikatiboa garatzea, sektore lez ahots bateratua izatea eta Euskal Hedabideen Behategia sustatzea eta indartzea dira.

2.1.2.1 Euskarazko komunikabideen pisu erlatiboa Euskal Herriko herrialdeetan

Euskarazko komunikazioaren esparruak egun bizi duen egoera deskribatzeko interesgarria da euskarazko komunikabideek Euskal Herriko herrialdeetako euskaldun protzentajearekiko duten pisu erlatiboa aztertzea. Adierazle honi erreparatzen diote EHU irakasle Arantzazu Gutierrezek, Antxon Mendizabalek, Santi Urrutiak, Nicolas Xamardok eta Iñaki Zabaletak *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa* lanean (2005: 113). Bertan azaltzen dutenez, probintzia bakoitzean errealitatea zeharo desberdina da. Gipuzkoari dagokionez, probintzia honetan euskaldunen %43 bizi da, eta bertan ekoizten dira euskarazko komunikabide guztien %54. Horrek esan nahi du Gipuzkoak hamaika puntuko pisu erlatiboa duela. Dudarik gabe, probintzia hau da oparoena euskarazko komunikabideek bizi duten egoerari dagokionez.

Bizkaian, bestalde, euskaldun guztien %32 bizi da, baina komunikabideetan duen portzentajea %26koa da, beraz, 6 puntuko pisu erlatibo negatiboa dauka. Aipaturiko autoreen arabera,

“Bizkaia oraindik urrun dago Gipuzkoak komunikabide lokaletan erakusten duen dinamikatik, azken urteetan hainbat ekimen burutu dituen arren” (2005: 113). Nafarroak, bere aldetik, pisu erlatibo positiboa dauka, euskarazko komunikabideen kopuruak (%12) euskaldunen ehunekoak (%8,2) gainditu egiten baitu. Araba eta Iparralde egoera dezente makurragoan dira. Nolanahi, bi horietan egoerarik txarrena bizi duena Araba da, euskarazko komunikabide guztien %3 soilik ekoizten baitira bertan (Iparralden ehuneko hori bi puntu altuagoa da). Euskaldunen %8 bertan bizi denez, bost puntuko pisu erlatibo negatiboa dauka.

Datu horietatik honakoa ondorioztatzen dute autoreek:

“Oso nabaria da Gipuzkoaren nagusitasun zabala euskarazko komunikabideak sortzeko ahalmenean. Gipuzkoako biztanleriaren %43 euskalduna da, eskualde gehienetan euskalduntasun portzentaje zabala dauka, eta tradizioz euskal kultura eta hizkuntzaren dinamikan aparteko garrantzia izan du. Horregatik, ez da harritzekoa euskarazko komunikabideen arloan ere indar handiena erakustea, guztien %54 herrialde honetan baitaude. Beste ertzean, ertz negatibo eta kezagarrian, Araba dago, Nafarroa eta Iparraldea baino okerrago euskal hedabideen sorkuntzan eta garapenean. Egiaz, euskal autonomia politikoak eta euskalgintzak porrot nabarmena egin du herrialde horretan”. (2005: 115)

Edonola ere, kontuan hartu behar da aipatu ikerketa 2005ekoa dela. Geroztik Araban egoerak hobera egin duela esan daiteke. Esaterako, azken hiru urteetan *Aiaraldea* (Aiaraldeako eskualdean argitaratzen da, euskara hutsez) eta *Alea* (Araba osoko tokiko albisteak ematen ditu, honek ere euskara hutsean) bezalako agerkariak sortu dira. Probintzia honetan oraindik lan asko dago egiteke, baina urratsak ematen hasiak dira bederen.

2.1.2.2 Euskarazko prentsaren gaur egungo egoera

Prentsan zentratzearen (gogoratu behar da ondoren idatzizko tokian tokikoez mintzatuko naizela), euskal prentsak, lehen aipaturiko informazio orokorreko *Berria* eta *Argiaz* landa, nazio mailako aldizkari tematikoak (*Jakin*, *Elhuyar*, *Bat*, *Aldiri*, *Bertsolari edota Hazi-Hezi*, esaterako) eta tokiko aldizkariak ere baditu. Horiek guztiak kontuan harturik, esan daiteke prentsaren esparrua ondo beteta duela euskarazko kazetaritzak. Alabaina, nabarmentzekoa da euskarazko prentsak oro har bizi duen egoera ez dela onegia. Gainontzeko euskarazko komunikabideekin gertatu bezala, gizartean eragin oso murrizta du erdarazko komunikabideekin alderatuz gero. Euskaldunek, orain dela hamarkada batzuk ez bezala, euskarazko kazetaritza-argitalpen ugari dituzte eskuragarri, baina orokorrean gehiago kontsumitzen dituzte erdarazko egunkari eta aldizkariak. Euskal prentsak dituen ahulguneak hiru direla esan daiteke (Camacho, 2000: 83): hedapen urriegia du, kalitatea aldetik oraindik badu zer hobetu, eta azpiegitura eta enpresa-ikuspegi ahulegiak ditu erdarazko prentsarekin lehiatu ahal izateko.

2.1.3 Etorkizunerako jarraibideak

Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa lanean euskarazko komunikabideek etorkizunera begira eman beharko lituzketen urratsak aipatzen dira (2005: 447). Hemen jarraibide horietako batzuk, nire hitzetan azalduko ditut:

- a) Euskarazko kazetaritzak aurrera egin dezan, gutxieneko kalitate maila bat bermatu behar da. Ez da nahikoa edukiak euskara hutsean igortzearekin; eduki horiek kalitatezkoak izan behar dira. Kalitatea, oro har, maila guztietan eman behar da: produktuen sorkuntzan, banaketan eta erabiltzen de hizkuntza-ereduan, besteak beste.
- b) Euskaraz diharduten kazetari asko eta askok lan-baldintza zailtan egiten dute lan. Lan-ordu luzeak eta soldata baxuak eguneroko kontua dira euskarazko komunikabideetan dabilzan askorentzat. Etorkizunari begira egoera horri amaiera ematea funtsezkoa da, kazetaritza-eredu duin bat lortu nahi bada, bederen.
- c) Berebiziko garrantzia du euskarazko publizitatearen esparruan sareak ehuntzeak. Horretarako, administrazioaren laguntza behar beharrezkoa da.
- d) Kazetaritzaren eta literaturaren arteko harremanean sakonduta emaitza oso emankorrak lor daitezke, batik bat kohesio soziokulturalari dagokionez.
- e) Kazetaritza espezializatuak indar handia hartu du azken urteotan, eta euskarazko kazetaritzak ezin dio horri entzungor egin.
- f) Internet eta teknologia berrietara egokitzeko ahalegin dezentekoa egin dute euskarazko komunikabideek. Dena den, oraindik asko dute egiteke alderdi horri dagokionez. Horrekin lotuta, funtsezkoa da multimedia proiektuak garatzea.

2.2 Euskarazko idatzizko tokian tokiko hedabideak

Ondorengo bi ataletan nire gaian agertzen diren bi elementuak (euskarazko tokian tokiko idatzizko hedabideak batetik, eta euskararen normalizazioa bestetik) bakoitza bere aldetik aztertuko ditut. Euskarazko tokian tokiko idatzizko komunikabideei helduta, lehenik eta behin komenigarria da tokiko komunikabideak zer diren definitzea. Horretarako Asier Aranguren eta Jasone Mendizabalek komunikabide lokalez egindako definizioak emango ditut, uste baitut egokiak direla tokiko hedabideen esentziaz jabetzeko:

“Komunikabide lokalak herri, hiri edo eskualde jakin bateko bizilagunek berta-bertako informazioa jasotzeko daukaten eskubide eta jakinminari bereziki erantzuteko asmoz sortutako komunikabideak dira” (Aranguren, 2000)

“Tokiko hedabidea nagusiki tamaina txiki edo ertaineko giza komunitate bati zuzentzen dena da, lur eremu jakin batean, bere eguneroko esperientziei buruzko edukiak, bere kezka eta arazoei buruzkoak, bere hizkuntza, arte zein kultur ondare eta bere memoria historikoa jorratzen dituen... Azpimarratu beharra dago, gertutasun zentzu honek ez duela bakarrik kontuan hartzen gertuko edukien zabalkundea (herritarrentzat esanguratsuak, beraien zeinu, erreferente eta eguneroko eta gertuko errealitateari lotuak), baizik eta bere tokian tokiko ekoizpena ere”. (Mendizabal, 2005)

Dena dela, atal honetan ez ditut euskarazko tokiko komunikabideak orokorrean jorratuko; tokiko prentsan zentratuko naiz, lan honen gaiak idatzizkoei erreparatzen dielako, eta aztergaia tokiko aldizkari bat delako, alegia, tokiko prentsaren parte da. Hurrengo orrietan honen aurrekariak, garapena, ezaugarriak, funtzioak eta beste zenbait atal jorratuko ditut.

2.2.1 Euskarazko tokiko prentsaren aurrekariak eta garapena

Egungo aldizkari lokalen lehenengo aurrekariak herrietan argitaratzen ziren orri parrokialak eta berripaperak dira. Hauek maiztasun aldakorrekoak izan ohi ziren, eta herritar guztiei zuzenduta zeuden. Orri parrokialak herriko apaizak idatziak izaten ziren, eta hizkuntza bezala euskara edo erdara zerabilten. Herritarrentzat oso gertukoak ziren gaiak jorratzen zituzten, hots, herri inguruan gertatutako gauzekin lotura zutenak; horregatik kontsidera daitezke orri parrokiak hauek egungo tokiko aldizkarien aitzindari. (Camacho, 2002: 68)

Gauzak horrela, Espainiako II. Errepublikan eremu urriko zenbait argitalpen sortu ziren, hala nola, 1931. urtean agertu zen *Arrati'ko Deya*, inguruko albisteak euskaraz eskaintzen zituenena. Eulogio Gorostiaga apaiz zeanuritarraren ekimenez sortu zen, eta 1932ra arte argitaratu zuen, hil zen arte, hain zuzen. Gorostiagak *Euzkadi* egunkarian eta hainbat aldizkaritan albiste lokalek garrantzi handia zutela ikusi zuen; horrela, aldizkari propio bat sortu zuen, espreski informazio lokalean zentratuko zena.

Bestalde, informazio lokala zabaltzen zuten Errenteriako *Renteria* eta *Oarso* urtekariak euskarazko zenbait testu argitaratu zituzten; gutxitan izan bazen ere, zenbaitetan euskara erabiltzeko erabakia hartu zuten. II. Errepublika garaian sortutako beste tokiko aldizkari bat *Bermeotarra* izan zen. Eskualde mailan ziharduen hilabetekari hau abertzalea zen, eta hizkuntzari dagokionez elebiduna, gaztelania eta euskara erabiltzen baitzituen.

Gerra Zibilaren osteko garaiei dagokienez, 50eko hamarkada oso oparoa izan zen tokian tokiko prentsaren alorrean. Urte haietan euskarazko kazetaritza nagusiki herrietan egiten zen, eta horren emaitza bezala hainbat agerkari lokal ernatu ziren. Gehienak elebidunak eta elizarekin estuki harremanduak ziren. Horien artean ditugu *Eibar* (1952-gaur egun arte), *Ondarribi'ko Izparrak* (1956-1959), *Sirimiri Zornozano* (1959-1962) eta *Gure Erria* (1957-1984), euskara hutsez argitaratzen zena.

Egoera horretan, 80ko hamarkada amaieran eta hurrengo urteetan prentsa lokalaren *booma* jazo zen. Urte haietan idatzizko tokiko hedabideek ordura arte sekula izan gabeko hazkundea izan zuten. Kopuruz, hedapenez zein indarrez sekulako gorakada izan zuten. Loraldi horren erreferenteak Arrasateko *Arrasate Press* eta Bortziri eta Malerreka *Ttipi-Ttapa* izan ziren, biak ere 1988an sortuak. Hauek jaió eta hurrengo urteetan herri aldizkariak han-hemen hasi ziren sortzen. Erreferenteen arrakasta ikusirik, asko izan ziren herri-prentsan murgildu ziren herri eta eskualdeak.

Loraldi horren atzean dagoena ulertzeko komenigarria da 80eko hamarkadan eman ziren zenbait fenomeno garrantzitsuri erreparatzea (Aranzabal, 1998). Alde batetik, autoedizioak irauli egin zuen komunikazioaren esparrua, kazetaritza egitea edonoren eskura jarri baitzuen. Honek aldizkari bat egiteko prozesua azkartu eta merketu egin zuen. Herri aldizkariaren esparruan *Arrasate Press* izan zen hau erabiltzen lehena. Autoedizioak aukera asko zabaltzen zituela ikusi, eta bete betean asmatu zuen. Bestetik, aipatzekoa da hamarkada honetan euskara batua finkatu eta haren erabilera zabaldu zela, eta horrekin batera Euskal Herriko hainbat txokotan euskara-taldeak sortu zirela, euskara sustatzeko xedearekin. Hauek estrategikotzat hartu zuten euskarazko komunikabide berriak sortzea. Horretaz landa, frankismoaren ostean instituzio publikoek euskal kulturarekiko zuten jarrera guztiz aldatu zen, askoz ere irekiagoak bilakatu baitziren.

Horrela, bada, orduz geroztik makina bat tokiko aldizkari sortu dira Euskal Herrian barrena. Gainera, kopuruaz gain aipagarria da hauen tirada eta maiztasuna handituz joan dela urteen joanaren poderioz. Horrela, hasieran hilabetekariak ziren asko astekari bihurtu ziren urteek aurrera egin ahala (*Guaixek*, esaterako, ibilbide hori egin zuen. Hasieran hilabetekaria zen, ondoren hilabetekaria eta astekaria egin ziren, eta azkenik biak batu eta astekari bateratua sortu zen). Dena dela, argi utzi behar da herri aldizkariak ez dutela hedapen homoginoa izan, leku askotan hazkunde ikaragarria izan duten bitartean (Gipuzkoan batik bat), beste leku batzuetan tokiko prentsaren fenomenoak askoz ere presentzia txikiagoa izan dutelako (esaterako Araban, non apenas sortu den tokian tokiko hedabiderik).

1988az geroztik (euskarazko prentsa lokala, kazetaritza fenomeno moduan, orduan sortu zela esan ohi da, *Arrasate Pressen* jaiotzarekin batera) egindako ibilbideari erreparatuz, esan behar da 90eko hamarkadan batez ere herri mailako argitalpenak sortu zirela. Horrela, eskualde berean hainbat eta hainbat tokiko argitalpen egon zitezkeen. Idoia Camachok bi epe banatzen ditu hamarkada honen barruan (2002: 78). Alde batetik haserako lehenengo sei urteak leudeke, zeintzuetan euskarazko herri-aldizkari gehienak jaio ziren. Hazkundera kuantitatiboa izan zen; lan-talde gehienek ardurak bakarrik aldizkaria garatzeko egin eta banatzea zen. Garai honetako aldizkariak bi funtzio zituzten: herri mailako informazioa eskaintzea, bertako gai eta gertakariak jasoz, eta euskara sustatzea.

Haatik, 90eko hamarkadako azken bost urteetan hazkunde kualitatiboa eman zen. Aldizkariak kalitate aldetik hobetzeko ahalegin handiak egin zituzten, besteak beste, diseinu erakargarriagoak eginez, edukien kalitatea hobetuz, herritarren parte-hartzea eta euskaraz eginiko publizitatea bultzatuz edota aldizkariaren arteko loturak indartuz. Horrela, bada, denborak aurrera egitearekin batera euskaraz izatea bigarren mailara igaro zen. Herri-aldizkariak beste funtzio batzuk hartu zituzten euren gain: euskarazko publizitatea suspertzea, jendearen intereseko informazioa eskaintzea, iritzi desberdinak biltzea, kultura sustatzea...

Gauzak horrela, milurteko aldaketarekin batera aldizkariok eskualdeka integratzeko urratsak ematen hasi ziren, “arrisku berriei aurre egite aldera” (Tokikom, 2013: 5). Hala sortu ziren

Goiena edota *Anboto* bezalako ekimenak (bereziki esanguratsua da lehena, Debagoienan multimedia komunikazio enpresa handi bat bilakatu baita). Hauez gain, *Berria* taldeak sustaturiko *Hitzak* ere aipatu beharrekoak dira. Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako hainbat eskualdetako informazioa euskaraz lantzen duten bost *Hitza* daude gaur egun: *Oarso-Bidasoko Hitza*, *Lea-Artibai*, *Mutriku eta Busturialdeko Hitza*, *Urola Kostako Hitza*, *Goierriko Hitza* eta *Iruzuluko Hitza*. Hauekin batera Tolosaldeko *Ataria* genuke, lehen *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza* zena, *Galtzaundi* aldizkaria eta *Ataria Irratia* biltzen dituen.

Azken urteei dagokienez, herri aldizkariak, gainontzeko toki komunikabideek bezalaxe, elkarren artean bateratzeko joera erakutsi dute. Horren emaitza bezala 2012ko udaberrian Tokikom, hots, tokian tokiko hedabideen bateragunea sortu zen, “esparru komunak indartzeko eta integrazio posiblea aztertzeko” (Tokikom, 2013: 5) xedearekin. Horren aurretik tokiko hedabide asko Topagunearen barruan zeuden bilduta. Alabaina, elkarte honek beharrezkotzat ikusten zuen komunikabideen garapenerako egitura sendoago bat sortzea. Horrela, sektorea enpresa legez egituratzen duen Tokikom sortu zen. Uneon 26 bazkidek kudeatzen dute, eta 60 komunikabideko sarea osatzen du. Guztien artean honako datuak metatzen dituzte: 200.000 irakurle, 169 langile, 650 laguntzaile inguru, eta 300.000 bisitari inguru webguneetan hilabetero (2013ko datuak).

2.2.2 Euskarazko prentsa lokalaren ezaugarriak eta funtzioak

Prentsa lokala definitzerako orduan egokia da honen inguruan Jexuxmari Zalakainek eginiko gogoetei erreparatzea. Honek prentsa lokala kontsideratzeko orduan hiru ikuspegi bereizten ditu: ikuspegi geografikoa, barne-antolaketaren ikuspuntua eta ikuspegi politikoa (1994: 57). Zalakainek ikuspegi hauek prentsa lokala eta prentsa nazionala alderatuz jorratzen ditu, horrela garbiago ikusten baita zer izaera duen prentsa lokalak eta zer ezberdintasun dituen prentsa nazionalarekiko. Ikuspegi geografikoari dagokionez, Zalakainek dio ikuspegi honen arabera prentsa nazionala dela Euskal Herriko zazpi probintzietara iristen dena, edo behintzat esparru geografiko hori betetzeko egina dena. Prentsa lokala aldiz, herri mugakoa edota eskualde edo bailara mailakoa da, eta esparru horri dagokion hurbileko informazioa hedatzen du.

Bestetik, barne-antolaketaren ikuspegiari jarraiki, prentsa nazionala interes orokorrekoak izan daitezkeen zatiekin osatzen da. Prentsa lokala, ordea, toki bakoitzari dagozkion zatiek edo orrialdeek osatzen dute. Ikuspegi honen arabera, hedabide batek prentsa nazionala zein prentsa lokala izan ditzake bere orrietan. Alegia, orri batzuk informazio orokorrekoak, denen interesekoak izan daitezke, eta beste batzuk eremu jakin bati zuzenduak. Hirugarren ikuspegiari, hots, ikuspegi politikoa dagokionez, Zalakainek arabera, prentsa nazionalak nazio eraikuntzarekin du zerikusia, edo zuzenean berau du helburu nagusi. Kasu honetan berdin da eremu geografiko osoa hartzea edo ez hartzea. Kontua da nazioa eraikitzeko proiektuarekin estuki harremanurik egotea. Prentsa lokalak, ordea, egungo banaketa administratiboa ez du zalantzapean jartzen. Egitura sozial eta politikoa ez du ukitzen, ez du kritikoki jorratzen. (Zalakain, 1994)

“Prensa lokalak bertakotasuna eta hurbiltasuna landuko du maila informatiboan hutsune hori bistakoa delako; euskara erabiliko du hizkuntza hori behar bezala ez delako lantzen ez eta elebitasunerako joera duten medioetan, erdarak nagusitzen direlako hain zuzen ere. Egoera politikoaren aldaketa politikari profesionalentzat utziko du, herriko gatazketan ez du zuzenean parte hartuko, guztientzat zabalik mantenduko ditu orrialdeak, bakoitzak esan dezala nahi beste (joko demokratikoaren errespetoa mantenduz), editorialak ebitatuko ditu iritzia emateak duen arriskua saihestuz, iritzi-ugaritasuna bilatuko du, etab.” (Zalakain, 1994: 58)

Euskarazko prentsa lokalak dituen ezaugarriekin jarraituz, lehenik eta behin esan behar da euskarazko herri-aldizkariak tokiko (herriko, bailarako...) albisteetan daudela oinarriturik, eta doakoak izan ohi direla. Alegia, aleei ez diete salneurrik ipintzen, doan banatzen dira etxez etxe. Doakotasunaren abantaila nagusia zabalkunde handia lortzea da. Izan ere, aldizkariengatik ordaintzeko prest ez leudekenengana ere iristeko aukera ematen du. Aldizkarietara prezioa jarrita, ordea, merkatua dezente murrizten da, doan izanda irakurtzen dituen jende asko ez baitago prest berengatik ordaintzeko. Doakotasunari eusteak, ordea, aleen salmentagatik jasotzen diren diru-sarrereri muzin egitea dakar. Horren inguruan honako aburua du Topaguneko zuzendari Jasone Mendizabalek: “Doakotasunaren aldekoa naiz, baina tokiko aldizkarietarako diru-sarrera zuzenak baztertzea ere zaila egiten zait. Harpidetzak, produktua eskuratzeak, doakoa izan behar duela uste dut, baina bada herritarren inplikazio ekonomikoa lortzeko beste modurik, bazkidetzarena edo laguntzailearen figurarena, esaterako”. (Mendizabal, 2005: 147)

Maiztasunari dagokionez, euskarazko herri aldizkari gehienak astekariak, hamaboskariak edo hilabetekariak dira. Badago maiztasun handiagoko herri aldizkariak, Hernaniko *Kronika* egunkaria esaterako, baina salbuespen direla esan daiteke. Katalunian astean bi edo hiru aldiz argitaratzen diren aldizkari franko daude, baina hemengoek beste eredu bat dute. 90eko hamarkadan hilabetekari forma oso hedatua egon zen, baina milurteko berrian sartzearekin batera hilabeteen behin argitaratzen ziren agerkari askok maiztasuna handitu zuten, hamaboskari edota astekari bihurtuz. Astekaria formatua oso egokia da tokiko aldizkarietarako, gaurkototasunari heltzeko aukera ematen baitie, gaiak sakon lantzeari muzin egin gabe. Hilabetekarietan, ordea, ezinezkoa da eguneroko informazioa jorratzea, hauetan albiste asko erabat zaharkiturik gelditzen baitira. Hauetarako gai atemporalagoak egokiagoak dira.

Bestalde, euskarazko prentsa lokalaren beste ezaugarrietako bat da interes orokorreko informazioa eskaintzen duela. Hau da, ez da gai jakin batean edo batzuetan zentratzen; gai guztiak ukitzen ditu: gizartea, politika, kultura, kirola... Horrela posible da jende gehiagorengana iristea, hots, ateak denei irekitzea. Aldizkari tematikoak izango balira, ateak itxiko lizkiekete herritar askori, eta hori herri-aldizkarietara ez zaie komeni, beren helburuetako bat euskara sustatzea eta ahalik eta pertsona gehiagorengana hurbiltzea izaki. Horretaz landa, esan beharra dago edukiak arinak eta ulerterrazak izan ohi direla. Horrek, euskaraz ongi moldatzen ez direnek ere testuak ulertu ahal izatea eta euskaraz irakurtzea atsegina izatea dakar.

Darabilten euskarari dagokionez, gehienek euskara batua darabilte, baina tokiko euskalkiez zipriztindua. Dena euskalkiz idazteak bi arazo dakartza berekin: alde batetik, ez dago euskalkien

idazkera arauturik, eta bestalde, jendeari oso arrotza suerta dakioke testuak euskalkiz irakurtzea, ez baitago horretara ohitua. Horrela, aldizkari gehienek euskara batua erabiltzea hobesten dute baina, esan bezala, leku bakoitzeko euskalkien zertzeladez lagunduta. Horrela testuak askoz ere gertukoagoak suertatzen dira irakurleentzat, batua hutsezko testuak arrotz samarrak izan baitaitezke zenbaitentzat.

Finantziario aldetik, herri-aldizkariak erakunde-publikoen diru-laguntzez eta publizitatez finantzaturik daudela esan behar da. Euskarazko prentsa lokalak euskara sustatzearen alde egiten duen lanagatik, alegia, beren funtzio publikoagatik jasotzen ditu laguntzok batik bat, eta funtsezkoak bilakatu dira beronen biziraupenerako. Publizitateari dagokionez, azpimarratu beharrekoa da herri-aldizkariak euskarazko publizitadedunak dituztela, eta publizitate guztia euskaraz idatzitakoa dela. Horrek zera erakusten du, euskaraz ere publizitatea egin daitekeela.

Herri aldizkariak betetzen dituzten funtzioei erreparatuta, nabarmendu behar da komunikabideek betetzen dituzten funtzio orokorrez (informatzea, entretenitzea...) landa beste hainbat funtzio espezifiko dituztela. Honakoak lirateke herri-aldizkariak dituzten berezko funtzio horiek (Camacho, 2002: 73):

- a) Giza harremanak bultzatzea: prentsa lokala komunitatearen kohesiorako tresna oso baliagarria da. Hori hurbileko informazioa hedatuta lortzen du. Izan ere, honi esker herritarren arteko harremanak sustatzen dira, aipaturiko kohesioari bide emanez.
- b) Kultur eragile eta hedatzaileak izatea: herri-aldizkari asko kultur elkarten ekimenez sortuak dira. Hori dela eta, aldizkariotan maiz leku berezia izaten dute kulturaren inguruko albisteei. “Gainera, euskal hizkuntza eta kultura bultzatu eta zabaltzearen ondorioz, herriaren identitatea indartzen dute”. (Camacho, 2002: 73)
- c) Inguruko denda eta enpresentzako erakustoki izatea: herri-aldizkariaren bidez herri eta eskualdeko denda eta enpresek beren berri eman dezakete. Horrez gain, azpimarratzeko modukoa da hauek euskarazko-publizitatea txertatzen dutela agerkarien orrietan.
- d) Produktu herrikoi eta irakurterraza egitea: aldizkariaren beren produktua herritar guztiengana zuzentzen dute. Gainera, artikulua ulertterazak egiten saiatzen dira, irakurleek dena behar bezala konprenitu ahal dezaten, eta horrela irakurtzen gustura senti daitezten.
- e) Euskaraz irakurtzeko zaletasuna piztea: herri aldizkariak euskaraz irakurtzeko zaletasuna sortzen saiatzen dira. Lan horretan begirada batik bat euskaraz noizean behin irakurtzen dutenengan eta inoiz ere irakurtzen ez dutenengan paratzen dute. Horretarako, arestian esan bezala, herri-aldizkariak hizkera ulertterraza erabiltzen saiatzen dira, horrela errazagoa baita irakurtzeko ohiturarik ez dutenak eroso sentitzea, eta hauengan euskaraz irakurtzeko zaletasuna piztea.
- f) Iritzi aniztasuna bermatzea: beren izaera plurala dela eta, herritarrek izan ditzaketan iritzi ezberdinei lekua egiten diete. Modu horretan posible da herritar guztiengana iristea, inor ez baita diskriminatua sentitzen.

2.2.3 Etorkizunerantz eman beharreko urratsak

Komunikazioaren mundua etengabe ari da aldatzen. Globalizazioak eta interneten iraultzak makina bat erronka berri ekarri dizkiete hedabideei. Testuinguru berrira egokitu, eta etorkizunari begira aurrea hartzeko gaitasuna izatea derrigorrezkoa zaie. Herri-aldizkarien, eta oro har tokiko komunikabideen sektorea ez dago egoera horretatik salbu. Sektore honek aldaketa handiak izan ditu azken urteetan, eta datozenetan ere hala gertatuko dela dirudi. Horrela, bada, tokiko hedabideek (prentsa lokala barne) hainbat urrats ematea beharrezko dute etorkizunari nolabaiteko segurtasunez heltzeko.

Alde batetik, tokiko hedabideek kontuan hartu beharko lukete etorkizuna multimedia egitasmoetan dagoela. *Goienak* urrats hori jada emana du, baina bestelakoan gabezia oraindik nahiko handia dela esan behar da, Euskal Herrian oso gutxi baitira formula hori aplikatzen duten enpresak. Hainbat hedabide biltzen dituzten egiturak sortu behar dira, hori baita baliabideak optimizatzeko modurik eraginkorrena. Horri lotuta, Goienako Ikus-entzunezkoen zuzendari den Iban Arantzabalek dioenez, eduki bakarra medio ezberdinetan ematen asmatu behar da, beti ere euskarri bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik. Izan ere, funtzionamendu hori aplikatuta irismena handitu, eta edukia hobeto lantzen da. Hori lortu ahal izateko beharrezkoa da kazetaria behar bezala formatzea, multimedia filosofia horrekin eroso senti dadin (Arantzabal, 2008).

Bestetik, aldizkariak eskualdea hartu beharko lukete hedapen esparru legez. Jada zenbaitek urrats hori emana dute, baina asko oraindik herri mailakoak dira. Eskualde mailan aritzeak hazteko eta garatzeko aukera handiagoak eskaintzen dizkie herri-agerkariari. Eta hedapen eremua handitzeak ez dakar herri informazioa galtzea; kontrara, informazio honentzat espazioa irabazten da, eskualdeko herri guztietako albisteak jorratzen baitira. Horrela jendea bere herri inguruan gertatzen denaz jabetzen da, eta horrek komunitatea kohesionatzeko balio du. Iban Arantzabalen aburuz, eskualde mailako proiektuak sortzea, hein batean, administrazioek sustatu beharko lukete.

“Denon diruak administratu behar dituenak argi izan beharko luke hilabetean behin 1.000 edo 15.000 biztanleko herri batendako agerkari bat den lagundu beharrekoa edo agerkari hori proiektu sendoago baten parte izateko lagundu behar duen. Herri aldizkariak bihurtu beharko genituzke eskualdeko aldizkari, eta are argiagoa dirudi herri telebisten kasuak. Gaur ez dago lekurik herri telebistentzako eta legea egin behar izan da horretarako, erkidegoa eskualdeetan banatuz. Ez dakit legerik behar den aldizkariekin ere antzera jokatzeko, baina administrazioak eragingo balu eta erakargarri bihurtu urrats hori ematea?” (Arantzabal, 2008: 105)

Horrez gain, etorkizunari begira tokiko hedabideentzat oso garrantzitsua izango da interneten duten presentzia indartzea. Egungo eta etorkizuneko ingurune digitalizatuan bere lekua egin beharko dute. Ezinbestekoa da informazioa bertsio digitalean ematea, jende askok (batik bat gazteek) informazioa soilik interneten kontsumitzen duelako. Egoera horretan, toki komunikabideek lortu behar dute interneten berriak irakurtzen dituenaren irakurgaien artean

egotea. Horretarako, arreta bereziz zaindu behar dituzte agerkarien bertsio digitalak, kalitatezko edukiak sortuz, berauek sarera behar bezala egokituz, eta jendearen parte hartzea suspertuz. Gazteentzako erakargarriak izateko, tokiko hedabideek eduki bizi eta arinak eskaini behar dituzte, multimedia formatuan. Hauentzako erreferentzia izatea lortu behar da.

Bestalde, negozio ereduari ere arreta handiz erreparatu beharko diote. Alde batetik, erakunde publikoekin harremanak sendotu beharko dituzte, eta saiatu beharko dira urtez urteko diru-laguntzen formula alde batera utzi eta kontratu-programen formulara igarotzen (Eneko Bidegain, 2013). Dena den, tokikoek garbi eduki beharko lukete ezin daitezkeela instituzioetatik jasotzen duten diruaren menpeko izan. Alegia, autofinantzaketa garatzea ere funtsezko dute, etorkizunean egoera oparagoa izateko. Autofinantzaketa sendotzeko eredurik egokiena eskualde mailako komunikabideena da. Izan ere, eskualde mailan aritzeak aukera ematen du, besteak beste, publizitate gehiago lortzeko, eskualde mailan herri mailan baino denda eta enpresa gehiago dagoelako. Garbi dago instituzioek diru laguntzak eman behar dizkietela, euskaraz aritzeak berezko hainbat oztopo baititu, baina tokiko hedabideak ezin daitezke laguntza horien menpeko izan.

Halaber, tokiko hedabideek garbi izan beharko lukete bateratuta indartsuagoak direla. Garai oparoetan posible zen bakarka irautea, baina orain funtsezkoa da komunikabide lokalen artean lankidetzak sustatzea. Jada hasia dute elkarlanerantzko joera (Tokikom da horren adibide), baina etorkizunari begira garrantzitsua izango da harreman horiek are estuago bilakatzea. Batera arituta posible dute, besteak beste, estrategia komunak finkatzea eta sektore bezala ahots ozenagoa izatea. Horrekin batera, tokikoek euskarazko komunikabide orokorrekin duten harremana estutu beharko lukete. Tokikomen gogoeta taldeak 2013an argitaraturiko txostenean azaltzen denez, helburua etxe formako egitura bat sortzea litzateke, euskal hedabideen etxea hain zuzen, beheko solairuan toki komunikabide saretuak izango litzatekeena, eta goian hedabide orokorrak. Horrela, bi solairuen artean informazio eta eduki trukaketa etengabea emango litzateke (Tokikom, 2013).

2.3 Euskararen normalizazioa

Tokiko prentsaren inguruko azalpenak jada eman ditudala, ikerketa honen gaiaren bigarren elementuari, alegia, euskararen normalizazioari helduko diot orain. Lehenik eta behin hizkuntza-normalizazioa zer den azalduko dut, eta ondoren administrazioek euskarazko komunikabideei normalizazioaren alde egiten duten lanagatik ematen dizkieten diru-laguntzei erreparatuko diet, azalpen labur bat eginez.

2.3.1 Zer da euskararen normalizazioa?

Espainiako 1978 Konstituzioak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan euskara koofiziala dela zehazten du. 3. artikuluan aipatzen duenez, Espainiako Estatuko hizkuntza ofiziala gaztelera da, eta bertako gainerako hizkuntzak ofizialak dira dagokien

eremuan. Euskadiko Autonomi Estatutuari dagokionez, honek 6. artikuluan azaltzen du euskara Euskadiko hizkuntza ofiziala dela, bertako berezko hizkuntza delako. Halaber, bertan esaten da ofizialtasuna gaztelerarekin partekatu beharko duela, eta hiritar guztiak izango dutela bi hizkuntza hauek ezagutu eta erabiltzeko eskubidea.

Nafarroaren kasuan, hizkuntzen ofizialtasunaren gaia Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikuluan jorratzen da. Bertan finkatzen denez, Nafarroako hizkuntza ofiziala gaztelera da, baina euskarak ere maila ofiziala izango du eremu euskaldunetan (euskarari buruzko Foru Legeak hiru zonalde banatzen ditu, euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna). Eta Ipar Euskal Herriari dagokionez, nabarmendu behar da Frantzia soilik frantsesak duela izaera ofiziala.

Horrela, bada, euskarak izaera ofiziala du Euskal Herriko zati handi batean. Izan ere, estatus hori dauka Araban, Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroako zonalde euskaldunetan. Edonola ere, gaztelerarekin batera ofiziala izateak ez du esan nahi bi hizkuntzak egoera berdinean daudenik. Kontrara, diglosi egoeran dago euskara, gaztelera gainetik baitu. Azken hau gizarteak bere osotasunean daki erabiltzen, baina euskararekin ez da halakorik gertatzen. Hizkuntza minorizatua dugu euskara. Egia da hizkuntza hau ezagutzen duen jende kopuruak gorantz egin duela azken urteetan, baina leku askotan presentzia oso urria izaten segitzen du eta, gainera, badirudi ezagutzak ez dakarrela erabilera. Izan ere, euskararen kale erabilera trabatu egin dela esan daiteke (2001ean euskararen kale erabilera Euskal Herrian %13,3koa zen, eta hamar urte geroago kopuruak berdin berdina izaten jarraitzen zuen).

Horiek horrela, euskararen normalizazio prozesua egoera hori irauli eta euskararen ezagutza eta erabilera gizarteko esparru guztietara hedatzeko saiakera da. Alegia, euskararen normalizazioak hizkuntza hau eguneroko eremu formal zein ez formalean ohiko bilakatzea bilatzen du. Euskararen normalkuntza aurrera eramateko, funtsezkoa da hizkuntza plangintza egoki bat garatzea. Honen xedea erabilera zein ezagutza handiagotuz hizkuntzaren egoera hobetzea da. Hala, azken helburua hizkuntza minorizatua den euskarak hizkuntza hedatuena den gaztelerak duen balio soziala eskuratzea litzateke. (Camacho, 2002).

Egoera horretan, euskararen normalkuntzak gizarteko aktore guztien konpromisoa, esku hartzea eta lankidetzat eskatzen du. Instituzioek eta herritarrek norabide berean arraun egitea funtsezkoa da. Instituzioei dagokienean, behar beharrezkoa da hauek hizkuntza politika eraginkorrak bultzatzea eta, modu berean, euskara erabiltzeko eta sustatzeko benetako konpromisoa hartzea, eta ez hitz hutsaletan gelditzea. Nolanahi, instituzioen ahalegin horrek ezer gutxirako balio du ondoren herritarrek euskara ez badute eguneroko bizitzan (familian, lagunartean, lanean...) erabiltzen.

Horretaz landa, nabarmendu behar da instituzio eta ikastetxeek gain, komunikabideek ere funtsezko papera jokatzen dutela euskara gizartearen sustatu eta errotzeko garaian. Azken batean, gizarteak ordu asko igarotzen ditu hedabideak kontsumitzen, beraz, garrantzi handikoa da

hauetan euskarak ere presentzia izatea. Labur esanda, euskarazko komunikabideak hizkuntza normalizaziorako ezinbesteko tresna dira.

2.3.2 Euskararen egoera Sakanan

Azpiatal honetan euskarak Sakanako bailaran bizi duen egoera azalduko dut. Ikerketan Sakana mailan *Guaixek* euskararen normalizazioan duen eraginean zentratuko naiz, beraz, ataltxo honekin ikerketaren testuinguru linguistikoa zehazten saiatuko naiz.

Euskarak Sakanan bizi duen egoeraren azken datuak 2011ko Nafarroako mapa soziolinguistikoak eskainirikoak dira. Azken 1991-2011 arteko epealdiari erreparatuta, Sakanako udalerrien artean hiru martxa daude euskararen ezagutzari dagokionez: atzera egin dutenak, egoera berean darraitenak, eta aurrera egin dutenak. Aurrera egin duten udalerriak Arakil, Irurtzun, Altsasu eta Olazti izan dira. 1991n euskara biztanleriaren %10-19ak zekien soilik udalerrri hauetan. 2011n, ordea, %20-49ko ezagutza tartean daude.

Ezagutzari eutsi diotenen artean hiru multzo bereiz daitezke: alde batetik Ergoiena dago, non hogeitertan %80 baino gehiagoko ezagutzatik ez diren jaitsi; bestetik %50 eta %80 arteko ezagutza duten herriak daude (Lakuntza eta Etxarri Aranatz); eta azkenik, Irañeta, Uharte Arakil eta Iturmendi genituzke, %20-49,9 arteko ezagutza dutenak.

Euskararen ezagutzan atzera egin duten udalerriei dagokienez, batetik %80 baino gehiagoko ezagutza izatetik %50-80 arteko ezagutza izatera igaro direnak daude. Hauen artean ditugu Arruazu, Urdiain eta Arbizu. Bestetik, Ziordiren kasua genuke. 2001ean ezagutza %20-49,9 tartera igo zen, baina hamarkada baten buruan euskaldunen kopuruak behera egin zuen, atzera ere 1991ko tarte berean kokatzeko (%10-19,9 arteko ezagutzan, hain zuzen).

Hortaz, diagnosi baikorra eta ezkorra egin daiteke aldi berean. Izan ere, Altsasu, Olazti eta Irurtzun bezalako udalerrri handietan euskararen ezagutzak gora egin duen arren (%10-19ko tartetik %20-49,9ko tartera), herritarren %80 baino gehiago euskalduna den udalerrien kopurua asko jaitsi da (lautik batera, hain zuzen), eta beste zenbaitetan egoera nahiko trabatuta somatzen da, 20 urtetan ez baita gorakadarik izan, nahiz eta euskaldun kopuru nahiko apalak izan.

2.3.3 Euskararen normalizazioa eta diru-laguntzak

Eusko Jaurlaritzak 1994tik du araututa euskarazko prentsari diru-laguntzak emateko modua. 4303 aginduan aipatzen denez, herritarrek hedabideetan informazioa euskaraz eta gazteleraz jasotzeko eskubidea dute; horrela, Jaurlaritzak beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditu eskubide hori egikaritu dadin, tartean euskarazko aldizkarigintza sustatzea. Horrez gain, aipatu aginduak euskarazko prentsari diru-laguntzak emateko modua eta baldintzak zehazten ditu.

Laguntzok funtsezkoak dira euskarazko herri-aldizkariarentzat. Hauek urtero jotzen dute diru-laguntzen deialdietara, beren jarduna aurrera eramateko beharrazko den diruaren zati bat lortu

asmoz. Diru laguntzak arautzerakoan EAEn prentsa, telebista eta irratiak modu independentean hartzen dira. Toki hedabideei erreparaturik, Jaurlaritzak 1,21 milioi euroko laguntzak ematen dizkie (2012ko datuak). Kopuru horri Ipar Euskal Herriko *Euskal Irratiak*, *Herria* eta *Kanaldude* laguntzeko emandako dirua gehitu behar zaio. Hiru hedabide hauek Euskararen Erakunde Publikotik 400.000 euro inguru jasotzen dituzte. Erakunde hori Frantziako Estatuak, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak eta Akitaniako Eskualdeak eta Eusko Jaurlaritzak berak finantzatzen dute.

Nafarroaren kasuan, bertako parlamentuak onartutako 386/1996 foru aginduak ez du komunikabideen artean bereizketarik egiten. Agindu honen arabera, Hizkuntza Politikorako Zuzendaritza Nagusiaren eginkizunetako bat euskara sustatzea da, eta hori lortzeko komunikabideak oso dira kontuan hartu beharrekoak. Alabaina, aipatzekoa da azken urteetan Nafarroako Gobernuak ez duela dirurik jarri tokiko hedabideei laguntzeko. Hauek Jaurlaritzaren laguntzetatik edan behar izan dute. Orain, gobernu berriarekin, gauzak aldatu egingen dira. Dirudenez, Nafarroako komunikabide lokalak laguntzak bertako gobernuarengandik jasoko dituzte, eta ez Jaurlaritzarengandik.

Bestalde, aipatu behar da Diputazioek ere eskumenak dituztela hizkuntzaren eta komunikabideen alorrean, Lurralde Historikoen Legeari jarraiki. Gai hauetan duten sustapen ahalmena erabiliz, EAEko diputazioek aldizkarigintzako diru-laguntzak arautu dituzte, modu desberdinean bada ere (Aranguren, 1999). Gipuzkoaren kasuan, bertako aldundiak 1996an onartutako 32/1996 Foru Dekretuan onartzen du diru-laguntzen deialdia. Dekretuaren arabera, diru-laguntzak euskarazko aldizkariak lokalak sustatzen dituzten elkarte nahiz bestelako antolakuntzei emango zaizkie. Aldundi guztien artean Gipuzkoakoa da, ez bairik gabe, orain arte tokiko argitalpenak gehien lagundu dituenak, bai hastapenetan, baita azken urteetan ere. Datuak horren lekuko dira: 2012an Gipuzkoako Foru Aldundiak 519.544 euro banatu zituen aldizkari lokalen artean, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiek baino askoz gehiago (208.000 euro eta 9.000 euro eman zituzten, hurrenez hurren).

Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian tesiaren egile Asier Arangurenak honako hausnarketa egiten du Gipuzkoako Diputazioak herri-aldizkariari emandako diru-laguntzen inguruan:

“Egia da batez ere Gipuzkoan sortu direla aldizkari lokal gehien eta indartsuenak eta beharbada egoera horri lagundu nahian erabili du Gipuzkoako Foru Aldundiak bere sustapen ahalmena, baina, beti bezala, alderantziz ere pentsa liteke: dauden laguntza ekonomikoei esker sortu izan dira iraunkor eta sendoago aldizkariak Gipuzkoan”. (Aranguren, 1999: 47)

Azkenik, udalek eta mankomunitateek ematen dituzten diru-laguntzak ezin daitezke aipatu gabe utzi. Administrazio lokalak dira tokiko hedabideetan diru gehien jartzen dutenak. 2012ko datuen arabera, udalek 1,98 milioi euro inguru banatzen dituzte aipatu komunikabideen artean. Kopuru hori ziur aski are handiagoa da, hainbat hedabideren datuak falta baitira. Horrez gain, azpimarratu behar da udalek egoitza doan uzten dietela aldizkari askori. Mankomunitateei

dagokienez, hauek 120.000 euro inguru banatzen dituzte. Kasu gehienetan, hedabide lokalek laguntzak udalengandik jasotzen dituzte, eta ez mankomunitateengandik, baina salbuespenak badira; hala nola, *Guaixe*, zeinak Sakanako Mankomunitatearen partetik diru-laguntza garrantzitsua jasotzen duen (80.000 euro ingurukoa).

2.4 Euskarazko tokiko hedabideen eragina hizkuntza-normalizazioan

Marko teorikoarekin bukatzeko, euskarazko tokiko hedabideek euskararen normalkuntzan duten eraginaz solastuko naiz. Lehenik eta behin, nabarmendu behar da hizkuntza baten biziraupena bermatzeko funtsezkoa dela erreprodukzio soziala ziurtatzea, eta hori lortzeko hizkuntza horren erabilera hainbat esparrutan finkatu behar dela; esaterako, komunikabideetan. Komunikabideak, beraz, funtsezko tresna dira hizkuntzen normalizazioa lortzeko; zer esanik ez, euskara bezalako hizkuntza minorizatu batez ari bagara. Euskarazko hedabideak behar beharrezkoak dira euskararen etorkizuna sostengatzeko. Nolanahi, hedabide guztien artean bereziki ekimen publikokoei dagokie euskararen jarraipena bermatzea. Egitura publikoak dira garapen hori aurrera eramateko proposenak, enpresa pribatuek, oro har, interes ekonomikoak lehenesten dituztelako. Euskarazko herri-aldizkari gehienak ekimen pribatukoak dira, baina erakunde publikoen laguntza beharrezkoa dute biziraun ahal izateko. Horregatik, tokiko komunikabideei hedabide publikoen funtzio bera esleitu dakieke: euskararen alde lan egitea, hain zuzen. Beren lehen zeregina hizkuntzaren eta kulturaren defentsan jardutea da, eta ez mozkin ekonomikoak lortzea (Camacho, 2002).

Tokikoek berezkoa dute euskararekiko lotura hori, euskararen alde egiteko sortuak izan baitziren, euskara elkarteen eskutik. Alegia, tokiko hedabideen sorreran euskara dago, euskaltzaletasuna, hizkuntzaren aldeko borondatea (Tokikom, 2013). Euskararen normalkuntzari begira sekulako urratsa suposatu zuten hasiera hartan, hurbileko komunikazioaren esparrua euskararentzat irabazi baitzuten. Komunikabide hauei esker osoki euskalduna zen esparru bat eratu zen. Hori lortu ahal izateko funtsezkoa izan zen, *Arrasate Press* autoedizioak zekartzan aukerez ohartzeaz gain, aldizkariak argitalpen herrikoi, praktiko eta irakurterraz bezala planteatu izana, alderdikeriak alboratuta. Izan ere, horrela euskaldungo osoarengana iritsi, eta beren sektoreak garapen itzela izatea erdietsi zuten, esan bezala, euskararentzat esparru komunikatibo eksklusibo bat lortuz.

Gauzak horrela, hizkuntza komunitatearen identitatea eta esentzia mantentzeko berebiziko garrantzia dute tokian tokiko hedabideek. Horren adibide egokia da Katalunia, non historikoki katalana normalizatzeko eskualdeko prentsak funtsezko papera jokatu duen, eta azken urteetan katalanaren erabileraren suspertzea bultzatu duen. Fernando Muniozgurennek dioenez, euskarazko herri-prentsaren funtzio nagusienetakoa bat euskararen normalizazioaren alde lan egitea da, “euskaldungoa kultur produkzioaren abenturan sartuz eta beste komunikabide handiangoetarako bezeroak eginez” (1993: 190). Horrez gain, hedabide lokalei esker jatorrizko euskaldun eskolatuek gertuko berriak euskaraz jasotzen dituzte, euskaraz irakurtzen ez duten

jatorrizko euskaldun eskolatu gabeengan euskaraz irakurtzeko zaletasuna pizten da, euskaraz ez dakitenak euskarara hurbiltzen dira, eta euskarazko publizitatea indartu egiten da, agerian utziz euskarak ere saltzen duela (Arruti, 2003).

Bestalde, esan behar da euskarak tokiko komunikabideei asko zor dien bezala, tokiko komunikabideek ere asko zor diotela euskarari. Beren sorreraren atzean dagoen elementua izateaz landa, orainari nahiz etorkizunari begira euskara funtsezkoa da hedabide hauentzat. Izan ere, hedabide lokalek aurrera begira beharrezko dute beste komunikabide lokal nahiz instituzio publikoekin lankidetzak sustatzea, eta hori soilik euskarari esker gerta daiteke, berau baita aipaturiko aktoreek amankomunean duten elementua. Euskararik gabe, loturarik ez lukete izango, eta ez legoke lankidetzarik. Labur esanda, tokiko hedabideak euskarari esker dira lankide, eta euskararen alde egiten duten lanagatik jasotzen dituzte instituzio publikoen laguntzak. Hortaz, euskarari asko zor diotenez, ez da harritzekoa hizkuntza honekiko konpromiso handia erakustea.

Dena den, aipaturiko lankidetzak tokiko hedabideei bezainbeste interesatzen zaio euskarari. Izan ere, tokiko komunikabideen taldeak elkarlanean jarri, eta multimedia integrazioerantz jotzen badute, gai izango dira besteen informazioaz elikatu eta produktuen eta jardunaren garapena gauzatzeko, euskararentzat informazio sare oso eta trinkoa lortuz. Horrela, euskaldunen komunitatea biziena eta eragileena bilakatuko litzateke (Irizar, 2003).

2.4.1 Euskarazko tokiko hedabideen kalitatea: euskara maila lehentasun

Maria Gonzalez Gorosarrrik tokiko hamar aldizkariren kalitatea aztergai duen ikerketa argitaratu zuen 2006an. Hauexek dira aztertutako hedabideak: Txorierriko *Aikor*, Durangaldeko *Anboto*, Debagoienako *Asteleheneko Goienkaria*, Durangaldeko *Eraz*, Gasteizko *Geu*, Sakanako *Guaixe*, Hernaniko *Hernaniko Kronika*, Sakanako *Oixe*, Nafarroa iparraldeko eta Lapurdi hegoaldeko *Ttipi-Ttapa*, eta Lasarte-Oriako *Txintxarri*. Hedabide hauek hainbat parametroren arabera aztertu zituen Gonzalezek. Parametro horiek informazioaren kalitatea (BEKI metodoaren bidez neurtua), euskara maila eta maketazioaren kalitatea dira.

Aldizkarien hasierako zenbakia eta 2006ko egoera kontuan izanda, eta hedabideek lorturiko puntuazioaren batz bestekoa eginda, alde batetik agerian gelditzen da hasierako zenbakiek euskara maila lehenesten zutela (8,323), eta ondoren informazioaren kalitatea zaintzen zutela (7,29). Hasiera hartan maketazioa zen haintzat gutxien hartzen zen elementua (6,96). 2006an aldizkariak lehentasunen ordena bera mantentzen dute: lehenik euskara maila dugu, 8,38ko puntuazioarekin, ondoren informazioaren kalitatea, 7,41ekoarekin, eta azkenik maketazioa, 6,23koarekin.

Hortaz, 2006an euskara mailak segitzen du aldizkarien lehentasuna eta parametrorik baloratuena izaten. Horretan zeresana du azken urteotan euskara gero eta arautuago egoteak: Euskaltzaindiak hizkuntzaren alde gehiago ditu aztertuta, eta Estilo Liburuek kazetaritza hizkera

garatu dute. Gainera, nabarmentzeko modukoa da hedabideek urteotan sortu diren kontzeptu berriak euskaratzen asmatu dutela, ahalegin handia egin ondotik. Tokiko aldizkariak unean uneko euskararen arauari egokitzeko gaitasuna agertu dute, eta horrek zera ekarri du, urteen joanarekin batera euskara maila hobetuz joatea, datuek erakusten duten moduan. Labur esatearren, euskararen erabilera sustatzeko xedearekin sortu ziren aldizkariak garrantzi handia ematen diote hizkuntza behar bezala tratatzeari, beronekiko duten konpromisoaren erakusgarri. (Gonzalez, 2006)

2.4.2 Tokiko prentsa eta euskara: batua edo euskalkiak?

Erabili beharreko euskara buruhauste iturri izan da herri aldizkari frankorentzat. Batzuentzat egokiagoa da batua erabiltzea, baino beste batzuek egokiago deritzote tokian tokiko euskalkiak erabiltzeari. Horrela, erabiltzen den euskararen arabera hainbat eredu sortu dira. Batzuek batua darabilte, beste batzuek beren esparruko euskalkiaren aldeko apustua egiten dute, eta bi eredu arteko uztarketa egiten duenik ere bada. Azken urteetako joera euskara batua erabiltzea da, baina euskalkiei tartea egitea ere oso hautu interesgarria izan daiteke komunikabide lokalentzat. Izan ere, berauen ezaugarri nagusia hurbiltasuna da, eta euskalkiak hurbiltasun hori transmititzeko modu ezinhobea dira.

Alabaina, soilik euskalkia erabili nahi izateak arazo asko ekarri ditzake berekin. Alde batetik euskalkiak nola idatzi ez dago araututa, ez dago idazketaren inguruko irizpiderik. Bestetik, kazetariak euskalkia ondo menperatu behar dute, eta sarri ez da hala gertatzen. Gainera, irakurleei agian arrotza egin dakieke prentsa euskalkian irakurtzea (euskaldunberriei, kasu). Nolanahi, dena ez dira desabantailak: euskalkiak posible egiten du aldizkariok adineko zein alfabetatu gabeko jendearengana iristea. Eta noski, euskalkia erabilia bertoko euskara gordetzen laguntzen da. (Aranguren, 1999)

Abantaila eta desabantaila horiek kontuan harturik, asko dira batua eta euskalkia uztartzen saiatu diren aldizkariak. *Guaixek* esaterako, euskara batua darabil nagusiki, baina Sakanako hizkeraz zipriztindurik. Horrela, batuak eta euskalkiek dituzten abantailak bateratu, eta dituzten desabantailak ezabatzen dira. Emaitza bezala euskara eredu gertuko eta ulerterraza sortzen da, mota guztietako irakurleentzat egokia dena.

3. METODOLOGIA

Ikerketa lau urratsetan burutu dut. Lehenengo eta behin, *Guaixeko* erredaktore buru Alfredo Alvaro elkarrizketatu dut; bigarrenik, Altsasuko Itsasi euskaltegiko bi irakaslerekin solastu naiz; ondoren, Aztiker enpresak 2011n *Guaixerentzako* egindako inkestaren emaitzak aztertu, eta ikerketa honi begira interesgarriak diren datuak atera ditut; eta azkenik, aldizkariaren bazkideei inkesta bat egin diet, datu berriak lortzeko asmoz. Hurrengo lerroetan urrats horietako bakoitza xeheki azalduko dut.

3.1 Lehen urratsa: *Guaixeko* erredaktore buruari elkarrizketa

Ikerketari behar bezala heltzeko egin dudan lehen gauza *Guaixe* barruan eskarmentu handia duen pertsona batekin solastea izan da. Horrek hainbat aspektu interesgarri ezagutzeko balio izan dit: euskararen sustapenak aldizkariarentzat orain arte izan duen garrantzia, lan horretan zer funtzio bete duen eta betetzen duen... Elkarrizketa honi esker gaiaren inguruko ikuspuntu orokor bat lortu dut eta, era berean, ikerketa aurrera eramateko hainbat pista garrantzitsu eskuratu ditut.

Elkarrizketatua *Guaixeko* erredaktore buru Alfredo Alvaro izan da. 90eko hamarkadatik darama bertan lan egiten, eta ardura handiko kargu batean, beraz, aldizkariaren alderdi guztiak (ibilbidea, helburuak eta funtzionamendua barne) gertu-gertutik ezagutzen ditu. Hasiera batean elkarrizketa agerkaria kudeatzen duen *Guaixe* fundazioko (orain dela gutxi arte Bierrik elkartearen) koordinatzaileari egitea nuen pentsatuta, baina gero konturatu nintzen proiektuan ez daramala denbora askorik. Horrela, bada, aukera hori alboratu, eta azkenean Alvarorekin mintzatu naiz, lehen esan bezala, eskarmentu handiko pertsona delako, eta zeregin garrantzitsua duelako aldizkariaren barruan.

Solasaldi luzea izan da, 30 minututik gorakoa, zeinetan *Guaixeren* inguruko hainbat gai jorratu diren: aldizkariaren hasierako helburuak, urte hauetan guztietan izan duen bilakaera, euskararen sustapenean duen eragina, erredakzioan darabilten hizkuntza eredua, aldizkariaren ildo ideologikoa... Arestian esan bezala, horien guztien inguruan hitz eginda ikergaiaren inguruko ikuspegi zabal bat lortu dut, hurrengo urratsak ematerakoan oso baliagarria izan zaidana. Gainera, azpimarratzekoa da Alvarok pasa didala Aztikerrek egindako ikerlana, ondoren metodologiaren barruan pisu handia izan duena.

3.2 Bigarren urratsa: Itsasi euskaltegiko bi irakasleri elkarrizketa

Behin *Guaixeren* erredaktore burua elkarrizketatuta, hurrengo pausoa Sakanako Itsasi euskaltegiko bi irakaslerekin mintzatzea izan da. Elkarrizketa hau lehen urratsean lorturiko informazioa aberaste aldera egin dut. Klaseetan *Guaixe* material didaktiko bezala erabiltzen dute, beraz, garbi dago ikerketari begira oso interesgarria zela astekariarekiko irakasleek duten iritzia ezagutzeko. Elkarrizketatuak Itsasi euskaltegiko irakasle Idoia Artieda eta Patxi Flores izan dira (hitzordua azken honekin zehaztu da). Hasierako ideia irakasle talde handiago batekin hitz egitea zen, baina bakoitzaren ordutegiek ez zuten horretarako aukera handiegirik uzten. Horrela, azkenean birekin solasteko hautua egin dut.

Talde handi bat bildu ez izanak ez du lorturiko informazioaren kalitatea inondik inora gutxitu. Izan ere, bi elkarrizketatuek informazio oso aberasgarria eman didate (hau lan honen laugarren atalean azalduko dut). Solasaldian, besteak beste, *Guaixe* material lez erabiltzeko arrazoiez,

erabilpen moduez, ikasleek metodo honekiko duten jarreraz eta *Guaixek* euskarazko beste argitalpen batzuekiko dituen ezberdintasunez galdetu diet.

3.3 Hirugarren urratsa: Aztikerrek *Guaixeren* inguruan egindako inkestaren azterketa

Elkarrizketen fasea bukatu ondotik, egin dudan hurrengo gauza Alvarok pasatako Aztikerren txostena aztertzea izan da. Besteak beste euskararen ezagutza, erabilera, eta euskarazko hedabideak ikertzen dituen erakunde bat da Aztiker, eta 2011n *Guaixeri* buruzko inkesta bat egin zuen Sakanan, aldizkariaren eskariz. Guztira 15 urtetik gorako 703 lagun galdekatu zituzten telefono bidez, 2011ko martxoaren 25etik urte bereko apirilaren 13ra bitarte. Laginketa bi urratsetan egin zuten: aurrena, etxeetara kale eta atarien hurrenkeraren arabera deitu zuten, beti ere udalerrri bakoitzaren garrantzia kontuan izanik, eta ondoren etxe bakoitzean kuoten sistema aplikatu zuten, sexu eta adinen arabera oreka erdiesteko. Akats tarteari dagokionez, lagin osoarentzat %3,7ko lagin tartea erabili zuten, %95,5eko konfiantza mailan.

Bestalde, aipatu behar da zenbait galdera elkarrizketatu guztiei egin zizkietela, eta beste batzuk, ordea, herritarren multzo konkretu batzuei (elebidunei, erdaldunei, *Guaixe* ezagutzen zutenei, *Guaixe* irakurtzen zutenei...). Datuak herrika aurkezterakoan, hainbat herri “Beste herriak” izeneko multzoan sartu zituzten, herri horietako lagina oso txikia zela iritzita. Hauexek dira multzo horretan sartu zituztenak: Arbizu, Arruazu, Bakaiku, Ergoiena, Irañeta, Iturmendi, Lakuntza, Urdiain eta Ziordia.

Inkesta horietatik datu mordera atera zuten, besteak beste, *Guaixeren* ezagutza eta berau irakurtzeko ohituraren ingurukoak, *Guaixeren* irakurleen profilari buruzkoak, aldizkariaren sarbideari buruzkoak, eta agerkariarekiko iritzi orokorrarekin loturikoak. Eta ez soilik paperezko bertsioaren inguruan: interneteko webguneari eta *Beleixe* irratitari buruzko datuak ere lortu zituzten. Gauzak horrela, behin inkestaren emaitzak aztertuta, datu guztiak galbahetik pasa ditut, ikerketa honi begira baliozkoak direnekin soilik geratzeko. Lehenik eta behin, webgunearen eta irratiaeren inguruko informazioa alboratu egin dut, ikerketa hau *Guaixeren* paperezko edizioan zentratzen baita. Ondoren, *Guaixeren* eta euskararen arteko harremanarekin loturiko datu eta informazioak lehenetsi ditut. Dena den, horiez gain ikerketa honen gaiarekin hain hertsiki loturik ez dauden hainbat datu esanguratsu ere azpimarratu ditut.

Amaitzeko, azpimarratu beharra dago Aztikerren inkesta orain dela 5 urtekoa dela, eta denbora horretan zenbait aldaketa esanguratsu eman direla *Guaixen*. Nagusiena, 2012an doakotasuna alboratu eta aldizkaria soilik bazkideei banatzen hastea. Urte horretan Nafarroako Gobernuak euskarazko aldizkari lokalei laguntzak emateari utzi zion, eta horren ondorioz *Guaixe* ataka estuan gelditu zen. Gauzak horrela, ordura arteko negozio ereduja jada bideragarria ez zela ikusirik, aldaketa sakona burutu zuten esparru horretan. Geroztik astekaria soilik bazkideen etxeetan banatzen dute (bazkide izateko urtean 50 euroko kuota ordaindu behar da). Horrek,

ziur aski, 2011ko datuak aldatu egin ditu; esaterako, *Guaixe* irakurtzen duen erdaldunen kopurua, gauza bat delako musu-truk jasotzea, eta beste bat bazkide egin behar izatea, astekarrian jartzen duena ia ulertzen ez duzunean.

Edonola ere, egun datu batzuk menturaz aldatu egongo diren arren, uste dut 2011ko inkestak oraindik baliagarritasun handia daukala: batetik, aspektu oso interesgarriak jorratzen dituelako, eta bestetik, aldaketak, izatekotan, ez direlako oso handiak izan, ondoren nire inkesta burutzean ikusi ahal izan dudanez (adibidez, ikusi ahal izan dut bazkideen artean askok ez dakitela euskaraz. Hortik ondoriozta daiteke *Guaixeren* negozio-eredu aldaketak ez dituela erdarazko irakurleak uxatu).

3.4 Laugarren urratsa: *Guaixeren* bazkideei zuzenduriko inkesta

Laugarren eta azken urratsa neronek inkesta bat egitea izan da, datu berriak eskuratzeko helburuarekin. Inkesta gauzatzeko egin behar izan dudan lehen gauza beronen unibertsoa zehaztea izan da. Hasiera batean bi aukera nituen eskuartean: galdetegia irakurleei zuzentzea, edota helburua apur bat zehaztu eta ikusmiran bazkideak jartzea. Kontuan hartuta Aztikerrek inkesta Sakanako herritarrei eta *Guaixeren* irakurleei egin zuela, eta nire inkestaren xede legezu datu eta aspektu berriak ezagutzeko finkatu dudala, azkenean bazkideetan zentratzeko hautua egin dut.

Hori egin ostean, hurrengo urratsa *Guaixe* fundazioko koordinatzaile Goizeder Antonekin kontaktuan jartzea izan da, bazkideen helbideak eta telefono zenbakiak lortu ahal izateko. Antonek nabarmendu dit beraiei ere bazkideen inkesta burutzea asko komeni zaiela, eta nahi izan dudan informazio guztia erraztu dit. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da bazkideen datuak nahiz bestelako informazioa eskatzerakoan *Guaixek* erakutsitako prestasuna. Euren laguntza gabe ikerketa hau aurrera ateratzea lan zaila litzateke. Beraz, eskertzekoa da uneoro urgazteko prest egon izana.

Behin bazkideen zerrenda lortuta, bi gauza egin ditut: bata, galdetegia taxutzea, eta bestea, lagina zehaztea. Inkestaren helburua bazkideen profila, hauek *Guaixerekin* duten harremana, aldizkariaren inguruan duten iritzi orokorra, euskara sustatzeko egiten duen lanari buruz duten iritzia eta beste euskarazko komunikabide batzuk kontsumitzeko duten ohitura ezagutzeko da, beraz, ardatz gisa gai horiek dituen galdetegia atondu dut. Denera 28 itaun ditu: hasierako galderak bazkideek *Guaixerekiko* duten harremanari eta aldizkariaren hainbat alderditaz duten iritzari buruzkoak dira; ondoren, beste komunikabide batzuk kontsumitzeko ohituraren ingurukoak datoz; eta amaieran hainbat galdera pertsonal daude (kasurako, adinari, ikasketei eta lan egoerari buruzkoak), bazkideen profila zehazteko balio dutenak (galdera sorta eranskinetan dago ikusgai, baita inkesten emaitzak ere).

Laginari dagokionez, hasierako asmoa inkesta 400 laguni egitea zen, *Guaixek* Sakanan 1.443 bazkide dituela kontuan hartuta, %4,2ko akats tartearekin eta %95eko konfiantza mailarekin lan egitea suposatuko zukeena. Azkenean, aitzitik, 350 pertsona galdekatu ditut, gehiagorako denborarik ez baitut izan. Hortaz, %4,6ko akats tartearekin lan egin dut, %95eko konfiantza mailan. Lagina herrika banatu dut, herri bakoitzaren garrantzia, hots, bazkide kopurua kontuan harturik (ikus beheko taula). Azpimarratzekoa da azpilagina 10 bazkidekoa baino txikiagoa duten herriak multzokatu egin ditudala, “beste herriak” izenpean. Hauexek dira multzo horretan sartzen diren udalerrriak: Bakaiku, Iturmendi, Ziordia, Arruazu, Lizarragabengoa eta Irañeta.

	400eko lagina	350eko lagina	300eko lagina
Altsasu → 359	99	87	75
Etxarri-Aranatz → 303	84	74	64
Lakuntza → 153	42	37	32
Arbizu → 152	42	37	31
Beste herriak → 120	33	28	24
Urdiain → 90	25	22	19
Olazti → 73	20	18	15
Irurtzun → 61	17	15	13
Uharte-Arakil → 45	13	11	9
Ergoiena → 45	13	11	9
Arakil → 42	12	10	9

Inkestak 2016ko apirilaren 28tik maiatzaren 7ra bitarte egin ditut, telefono bidez. Deiak egun osoan zehar egin ditut, batzuk 11:30-15:00 artean, eta beste batzuk 16:00-21:00 artean. Deiak egiteko irizpideei dagokienez, *Guaixe* fundazioko koordinatzaileak pasatako zerrendaren ordenan egin ditut: herri bakoitzeko bazkideak auzoka daude zerrendaturik, eta auzoak, berriz, alfabetikoki. Horrela, zerrendako lehenengotik hasi, eta beheraka jarraitu dut. Deia hartu ez didatenen kasuan txanda-pasa egin dut, eta zerrendako hurrengoarekin jarraitu.

Inkestatuen erantzunak jasotzeko moduari dagokionez, pertsona bakoitzeko galdetegi bat erabili beharrean, udalerrri bakoitzeko bazkideen erantzunak paper berean apuntatu ditut. Metodologia horrek alde onak eta txarrak ditu. Txarrei dagokienez, udalerrri bakoitzeko galdetegi bat erabilita inkestako galderak ezin daitezke erlazionatu. Adibidez, ezin daiteke esan zein adin tarteko bazkideek ematen duten denbora gehien *Guaixe* irakurtzen, edota euskaraz dakitenak diren astekariari notarik onena ematen diotenak. Datuak erlazionatu ahal izateko pertsona bakoitzeko galdera-sorta bat erabiltzea beharrezkoa da. Bazkideak udalerrri multzokatuta egin daitekeen

erlazio bakarria datu orokorren eta udalerrri bakoitzeko datuen artekoa da (kasurako, esatea proportzioan Altsasuko bazkideak direla *Guaixe* jasotzen denbora gehien daramatenak).

Edonola ere, erabili dudak metodologiak, esan bezala, alde onak ere baditu. Udalerrri bakoitzeko bazkideen erantzunak paper berean apuntatuta, inkestak egiteko prozesua askoz ere arinagoa bihurtzen da, ez baita gauza bera 350 galdetegi inprimatzea edota 17 inprimatzea (udalerrri bakoitzeko bat). Gainera, horrela asko errazten da erantzunak aztertu eta emaitzak ateratzeko prozesua, alde handia baitago datuak eta ehunekoak 17 galdetegitatik ateratzearen eta 350 galdera-sortatutatik ateratzearen artean. Modu horretan akaso ez dut Aztikerrek bere ikerketan lorturiko sakontasunik lortu, baina nituen baliabideak kontuan izanda uste dut egokiena udalerrriko galdetegi bat erabiltzea zela, prozesua errazte aldera

Bestalde, nabarmentzeko modukoa da, zailtasunak zailtasun, bazkideek galdetegi erantzuteko erakutsitako prestasuna. Erantzuna, oro har, bikaina izan da. Denbora tarte laburrean 350 pertsona galdekatu ditut, eta hori soilik bazkideek erakutsitako jarrera irekiagatik izan da posible. Horretan zerikusia izan du, seguru aski, inkesta *Guaixeri* buruzkoa zela esateak; beste hedabide bati buruzkoa izan balitz, itaundutako pertsonetako askok jarrera uzkurragoa izango zuket. *Guaixe* Sakanakoa bertakoa da, gertutasuna transmititzen du, eta noski, normala da bazkideek, bazkide diren heinean, *Guaixere*kiko beste agerkari batzuekiko ez duten lotura izatea.

Inkesta egiteko prozesua neketsua izan da, baina, era berean, oso emankorra, emaitza oso baliagarriak lortu baitituz. Horietako batzuk aurreikusi zitezkeen, baina beste batzuk biziki harrigarriak suertatu zaizkit. Horiez guztiez hurrengo atalean solastuko naiz luze eta zabal.

4. IKERKETAREN EMAITZAK

Jarraian aurreko ataleko urrats bakoitzean lortutako informazio eta datuak azalduko ditut. Lehenik eta behin elkarrizketen laburpenak eskainiko ditut, elkarrizketatuen azalpen eta adierazpen esanguratsuenak aurkeztuz. Ondoren, Aztikerrek egindako inkestaren eta neronek eginkoaren emaitzez solastuko naiz. Nik egindakoari dagokienez, nabarmendu behar da ehunekoak bi hamarrekorekin aurkeztuko ditudala, eta ez bakarrarekin. Bi hamarrekorekin emateko zifrak behin borobildu ditut; bakarrarekin emateko, ordea, bi aldiz borobildu beharko nituzke, emaitzak desitxuratzeko arriskua areagotuz. Aztikerren inkestaren emaitzekin ere hala jokatzeari nire asmoa, baina ezinezkoa da, emaitza guztiak hamarrekorekin aurkeztu baitzituzten.

4.1 Alfredo Alvaro: "Euskara sustatzeko helburua hasiera hasieratik dago *Guaixeren* DNAn txertaturik"

*Guaixe*ko erredaktore buru Alfredo Alvaroren arabera, agerkaria bi jomuga garbirekin sortu zen: Sakana bailara gisa kohesionatzea, eta euskararen normalizaziorako tresna izatea. Azken honi

dagokionez, Alvarok azaldu du proiektua abiatu zuten hiru ikasleek *Guaixe* euskaraz lan egiteko eta euskarazko produktu bat Sakanara eramateko abagune lez ikusi zutela. Horrela, bada, bere iritziz euskara sustatzeko helburua hasiera hasieratik dago *Guaixeren* DNAn txertaturik. Gainera, uste du agerkariaren beste helburua, Sakana kohesionatzea hain zuzen, euskararen aldeko konpromisoarekin loturik dagoela, “Sakanako euskaldungoa kohesionatzea eta trinkotzea barnebiltzen baitu”.

“Behin agerkaria abiatuta, eman zen hurrengo urratsa Bierrik elkarte sortzea izan zen, zeinaren helburu bakarra ez zen agerkaria kudeatzea: kultura eta euskara sustatzeko tresna era izan nahi zuen. Hasierako urte haietan euskalkien inguruko azterketak eta tribial bat (GaldeSakan) egin zituzten, baita liburu batzuk argitaratu ere”, azaldu du Alvarok. Horrek guztiak, bere esanetan, gauza bat frogatzen du: euskara proiektuaren (elkartearen nahiz argitalpenaren) ardatza izan zela hasierako urte haietan.

Hasiera hartan euskara sustatzeko erabilitako estrategiei dagokionez, *Guaixeko* erredaktore buruak dio urte haietan helburu guztiak agerkaria ezagutzera ematearekin zeudela loturik. Horretarako mahai-inguruez eta bestelako ekimenez osaturiko sustatze kanpaina egin zuten, herri bakoitzeko hartzaile potentzialak zerrendatzearekin batera. “Behin hilabetekariaren (hasieran *Guaixe* hilabetearen behin argitaratzen zen) zutabeak jarrita, eta Sakanan behar bezala errotuta, bazkideak kanpaina bat egin genuen, Sakanako herritarren sostengua izateko. Kanpaina oso xumea izan zen, 300-400 bazkide lortu baikenituen. Kopuru txikia da, baina oinarri polita izan zen garai haietarako”.

Alvarok oroitu duenez, lehen urte haietan jada somatu zen aldizkariak eragina zeukala euskararen zabalpenean. Izan ere, euskaraz ez zekien jendea, edota euskaraz irakurtzeko ohiturarik batere ez zuena euskara hutsezkoa zen agerkaria irakurtzen hasi zen. Horrek harridura utzi zuela aitortu du Alvarok: “Txikia nintzenez, gogoratzen dut amonaren etxean *Principe de Viana* aldizkaria egoten zela, Nafarroako Gobernuak euskaraz argitaratzen zuena. Hark harridura egiten ninduen, oso arraroa baitzen urte haietan helduei zuzenduriko euskarazko aldizkari bat aurkitzea. Bada, antzeko harridura sentitu nuen *Guaixe* herritar jakin batzuek, erdaldunek kasurako, irakurtzen zutela ikustean. *Guaixek* euskara toki berrietara eramatea lortu zuen”.

Alvaroren esanetan, gaur egun ere aldizkariak euskarara hurbiltzen ditu euskaraz ez dakiten herritarrak, eta euskaraz irakurtzeko zaletasuna sortzen du horretarako ohiturarik ez dutenengan. Bere aburuz, horren atzean zio nagusi bat dago: euskara hutsezko agerkari bat izatea Sakanako informazioa jasotzeko modu bakarra. “Hemengo albisteak *Diario de Noticias* eta *Diario de Navarra* ere ematen dituzte, baina soilik noizean behin. Guk informazioa zabalago eta sakonago jorratzen dugu. Orduan, guk zabaldutako informazioa jaso nahi duena euskaraz irakurtzera derrigorturik dago, eta hori euskara sustatzeko ekintza oso garrantzitsua da”.

Guaixeko erredaktore buruaren arabera, erdaldunek astekarian agertzen diren gauza asko ez dituzte ulertzen, baina ahalegina egiten dute bederen, titularrak, argazki oinak eta antzeko

elementuak irakurriz. Finean, euskara kontsumitzen dute, eta hori, Alvaroren iritziz, oso garrantzitsua da. “Gainera, *Guaixe* akuilu izan daiteke euskara ikasten hasteko. Badago jendea albisteak ez ulertzeak amorrua ematen diona. Beraz, horrek euskaltegi batean apuntatzera motiba dezake. Motibagarriak mila gauza izan daitezke, eta uste dut *Guaixe* horietako bat dela”. Horretaz landa, Alvarok uste du *Guaixek* euskarari beste ekarpen bat ere egiten diola: bere esanetan, euskaldunek elkar identifikatzeko eta inguru erdalduna duten euskaldunen egunerokotasunean euskara txertatzeko ere balio du.

Urte hauetan guztietan euskara sustatzeko estrategiek izandako aldaketei dagokienez, Alvarok azaldu du aldaketak batez ere baliabide eta teknologia berriekin batera etorri direla. Bere esanetan, internetek makina bat aukera berri ekarri ditu, eta oraindik nahiko luketen zuku guztia ateratzen ez dioten arren, jada urratsak ematen hasiak omen dira. “Sarea komunitatea sendotzeko tresna oso aproposa da. Jendeak bertako gaien inguruan idazten du, eta, gainera, euskaraz. Sareko komunitatea asmo horrekin sortu genuen. Nahi duguna da jendeak webgunean parte hartzea, eta parte hartze hori euskaraz izatea”. Bestalde, nabarmendu du darabilten hizkuntza ereduak ez duela aldaketa handirik pairatu, nahiz eta hasiera batean euskalkiek apika presentzia apur bat handiagoa eduki. Gaur egun Sakanako euskaraz bustitako batua erabiltzen dute. Alvarok aitortu duenez, euskalkiei presentzia handiagoa eskaintzea nahiko lukete, baina ezinezkoa ei da, “Sakanan euskalki asko baitaude, elkarren artean aski ezberdinak direnak”.

Soa atzera botata, astekariko erredakzio buruak uste du egun *Guaixe* lehen urteetan baino eraginkorragoa dela euskararen normalizazio lanetan. Horren arrazoi nagusia agerkaria orain askoz ere errotuago egotea ei da. “Erabiltzaileengan ohitura bat sortu dugu; euskaraz irakurtzeko ohitura, hain zuzen. Geroz eta errotuago gaude, eta horrek eraginkorrago bihurtzen gaitu euskara zabaltzeko lanetan”.

4.2 Idoia Artieda eta Patxi Flores: “Ikasleak euskaraz irakurtzera ohitzeko erabiltzen dugu *Guaixe*”

Sakanako Itsasi euskaltegian urte asko daramatzate *Guaixe* klaseko material gisa erabiltzen. Altsasuko egoitzan irakasle bezala diharduten Patxi Floresek eta Idoia Artiedak azaldu dutenez, Etxarri-Aranatzen ekin zioten *Guaixe* erabiltzeari, eta georago Altsasun ere erabiltzen hasi ziren. Beren esanetan, metodologia horren helburua ikasleengan euskaraz irakurtzeko ohitura sortzea da, hots, “euskara ikasleen egunerokotasunean txertatzea”. “Aldizkaria ia maila guztietan erabiltzen dugu, helburua nagusia ez baita prestakuntza jakin bati begira ariketa bat eskaintzea, komunikabideak euskaraz kontsumitzeko ohitura sortzea baizik. Eta ohitura hori ikasle guztiengan sortu behar da, duten euskara maila dutela”, azaldu dute.

Erabilpen moduei dagokienez, klaseetan *Guaixe* erabiltzeko hainbat eta hainbat modu daudela nabarmendu dute. Artiedak, esaterako, ostiralero 7 bat ale eramaten ditu klasera, eta ikasleak klaseko lehen 10 minutuak horiek kuxkuxeatzen pasatzen dituzte. Behin errepassoa eginda,

irakasleak irakurri dutena kontatzeko eskatzen die. Floresek, bere aldetik, beste zenbait ariketa proposatu ohi ditu: hiruzpalau berri aukeratu, titularrak kendu, eta ikasleek izenburuak testuekin lotzea, titularrak asmatzea, izenburua emanda testuak aipatuko duena aurreikustea... “Horretarako testua ondo ulertzea beharrezkoa da. Horrek ahalegin bat eskatzen du, eta horrela asko ikasten da”, gaineratu du Floresek.

Bi irakasleek aitortzen dutenez, metodologia horrek zenbait desabantaila ditu, bereziki denbora aldetik, *Guaixe* klasean erabiltzeak astero-astero ariketak prestatu behar izatea eskatzen baitu. Prestatutako eta didaktizatutako material asko dute, irakasleentzat erosoagoa dena, beraz, batzuetan material hori lehenesten dute. Edonola ere, uste dute *Guaixe* erabiltzeak eskatzen duen esfortzuak pena merezi duela, euskaraz irakurtzeko ohitura pizten laguntzeko metodologia “oso aproposa” delako, eta ikasleei albiste errealak lantzea ohiko ariketak egitea baino interesgarriagoa suertatzen zaielako. “Gainera, benetako albisteekin lan egiterakoan, ikasleak euren aurre-ezagutzez balia daitezke. Alegia, gerta daiteke albiste batean jartzen duena bere osotasunean ez ulertzea, baina gaiaz lehenago irakurri dutena probestuz, dituzten zalantzak ebatzi ditzakete”.

Guaixez landa, beste zenbait euskarazko argitalpen ere erabiltzen dituzte, adibidez, *Berria*. Zernahi ere, garbi dute *Guaixe* erabiltzearen eta *Berria* erabiltzearen artean alde handia dagoela. “*Guaixek* euskara errazagoa darabil. *Berria* nazio mailako egunkari bat da, beraz, hizkera batzuetan Bizkaiko ikutuarekin joan daiteke, beste batzuetan Iparraldekoarekin... Eta euskara nahiko jaso darabil. *Guaixek*, ordea, Sakanako euskaraz ziprztindutako batua erabiltzen du, eta lexiko eta egitura sintaktiko errazagoak”. Horrez gain, azaldu dute *Guaixek* gertuko albisteak jorratzeak berak ulerterrazagoa bilakatzen duela, argudiatuz norberaren inguruan gertatzen dena beti dela konprenitzen errazagoa, “gutxienez aurre-ezagutza baduzulako”.

Orokorrean *Guaixek* euskara sustatzeko balio ote duen galdetuta, Floresek eta Artiedak baiezkotan daudela diote. Floresen esanetan, Sakanan *Berria* ez du jende askok irakurtzen, baina *Guaixe* bai, “mutur aurrean dutelako, ia doan delako, eta hemengo albisteak jorratzen dituelako”. Horrela, astekariari esker jendeak gutxienez euskarazko komunikabide bat kontsumitzen omen du. Artiedak, bere aldetik, azpimarratu du badagoela jende asko, euskaraz jakin ez arren, *Guaixe* erreferentziatza duena, eta hori, bere aburuz, oso esanguratsua da. “Erdaldunek ez dituzte albisteak goitik behera irakurtzen. Beste prozedura bat erabiltzen dute *Guaixe* kontsumitzeko, baina azken batean kontsumitu egiten dute. Sakanako albisteak ematen dituzten komunikabideen artean osatuena izateak hori dakar. Erdaldunak, hemengo albisteen berri izan nahi ezker, kasik derrigortuta daude albisteak euskaraz irakurtzera, eta hori, euskararen sustapenaren aldetik, oso positiboa da”.


4.3 Guaixe-Beleixe. Irakurleak eta iritziak, 2011 (Aztiker)

Metodologiaren atalean azaldu bezala, inkestetarik abiatuta egindako txostenean Aztikerrek *Guaixe* astekariaren, *Beleixe* irratia eta *Guaixe.net* webgunearen (egun *Guaixe.eus* deitzen da) inguruko datuak ematen ditu. Nik soilik paperezko edizioaren datuak landu ditut, ikerketa hau astekariaren ingurukoa baita, eta ez irratia edota webgunearen ingurukoa. Paperezko bertsioari buruzko atala hainbat azpiataletan dago banaturik. Jarraian horietako bakoitzean ematen diren daturik esanguratsuenak (batik bat lan honen ikergaiaren ikuspuntutik begirata interesgarrienak direnak) azalduko ditut. Azpimarratu behar da horietako zenbaitetan “azken asteko alea” edota “azken hilabetea” bezalako esapideak erabiltzen direnean, erreferentzia bezala inkesta egin zen unea hartzen dela.

4.3.1 Guaixeren ezagutza eta irakurtzeko ohitura

Guaixeren ezagutza oso zabala da Sakana mailan. Izan ere, hamabost urtetik gorako ia herritar guztiek (%96,4k) dute astekariaren berri. Gainera, aldizkaria ezagutzen duten herritarren bi herenak baino gehiagok (%68,8k) dio noizbait irakurri edo gainbegiratu duela. Halaber, *Guaixe* inoiz irakurri dutenen artean %79,8k azken asteko alea irakurri du. Azken hilabetean irakurri dutenak %18,9 dira, eta soilik %1,3k dio ez duela azken urtean irakurri. Sakanako hamabost urtetik gorako herritar guztiak kontuan hartuta, horrela banatuko lirateke astekaria ezagutu eta irakurtzen dutenak: (Ikus eranskinetako 1., 2, 3. eta 4. taulak)

- Herritarren %33,8k ez du ezagutzen edo ez du inoiz irakurri.
- %13,4k irakurri du, baina azken alea ez.
- %52,8k azken alea irakurri du. Multzo honen barruan, %38,1ek 30 minutu baino gutxiago eman ditu astekaria irakurtzen, eta %14,7k 30 minutu baino gehiago.




Iturria: Aztiker, *Guaixe-Beleixe: irakurleak eta iritziak, 2011*. Inkesta.

Horrez gain, aipatu beharrekoa da *Guaixe* adin tarte guztietara iristen dela indartsu. 15-34 urte bitarteko herritarrei dagokienez, hauen artean soilik %11,6k ez du *Guaixe* ezagutzen edo ez du

inoiz irakurri. 35-54 artekoen eta 55 urte baino gehiagoko kasuan, ehuneko hori dezente altuagoa da: %36,5koa eta %48,7koa, hurrenez hurren. Soilik herritar elebidunak kontuan hartuta, nabarmentzekoa da adin tarte guztietan herritarren 10etik 9k azken alea irakurri izana. (Ikus 5. taula)

Azken datu horri lotuta, esan behar da zenbat eta euskara gaitasun handiago eduki, orduan eta gehiago direla irakurleak, eta orduan eta denbora luzeagoz irakurtzen dutela *Guaixe* (euskal elebidunen eta elebidun orekatuan %70,2k dio *Guaixeren* azken alea irakurtzen 15 minutu baino gehiago eman dituela). Dena den, nabarmendu behar da ere elebidun hartzaile gehienek (%96,6k) astekaria ezagutu edota irakurtzen dutela, eta erdaldunen %18k azken alea irakurri edo gainbegiratu duela. (Ikus 6. taula)




Iturria: Aztiker, *Guaixe-Beleixe: irakurleak eta iritziak*, 2011. Inkesta.

Datu horiek guztiek erakusten dute *Guaixe* oso erroturik dagoela bailaran. Izan ere, ezagutza eta irakurketa maila altuak ditu, adin tarte guztietara indartsu iristen da, eta euskal elebidun eta elebidun orekatuengana ez ezik, elebidun hartzaile eta erdaldun elebarrarengana ere iristen da. Eta horren errotuta egoteak bailara kohesionatzeko eta euskara sustatzeko lanetan *Guaixe* eraginkorragoa izatea dakar.

4.3.2 *Guaixeren* sarbidea

Sarbideak *Guaixeren* ale bat bat az besterik jendek irakurtzen duen adierazten du. Inkestaren emaitzen arabera, herritar guztiak kontuan harturik, ehunekotan sarbidea %52,8koa da. Elebidunen artean, logikoaenez, sarbidea altuagoa da (%80,4koa, hain zuzen). Azken batean, kontuan hartu behar da euskara hutsezko aldizkari batez ari garela. Elebidun orekatuen eta euskal elebidunen artean duen sarbidea oso da altua: %82,4koa eta %81,2koa, hurrenez hurren. Nolanahi, euskara maila alturik ez dutenen artean ere sarbide altua du *Guaixek*. Izan ere, erdal elebidunetan %78,9ko sarbidea dauka, eta elebidun hartzaileetan, berriz, %43,8koa. Halaber, nabarmentzekoa da erdaldunen artean *Guaixek* %14,8ko sarbidea duela. (Ikus 7. eta 8. taulak)



Iturria: Aztiker, *Guaixe-Beleixe: irakurleak eta iritziak*, 2011. Inkesta.


Etxeetako egoera soziolinguistikoari erreparatuz gero, kide guztiak euskaldunak diren etxeetan astekariak %85,6ko sarbidea dauka, erdia edo gehiago erdaldunak direnetan %46,8koa, eta guztiak erdaldunak direnetan %21,3koa. Azken datu hau bereziki harrigarria da, etxe horietan kideetako bakar batek ere euskara jakin ez arren, bertan euskara hutsezkoa den *Guaixek* kontuan hartzeko sarbidea baitauka. Horrek zera esan nahi du, erdaraz bizi diren etxe askotako egunerokotasunean euskara txertatzen duela astekariak. (Ikus 9. taula)

Bestalde, herritarren hedabide-kontsumoaren eta *Guaixeren* sarbidearen arteko loturari dagokionez, azpimarratzekoa da *Guaixek Berriako* irakurleen artean duela sarbiderik handiena (%91 ingurukoa). Garako irakurleen kasuan sarbidea %73,1ekoa da. Eta ideologikoki aurrekoen oso ezberdina den *Diario de Navarraren* irakurleen kasuan, berriz, %46koa. Horrek zera erakusten du, *Guaixe* mota eta ideologia guztietako irakurleengana iristen dela, nahiz eta, normala denez, sarbide gehiago izan *Berria* edo *Gara* bezalako egunkarien irakurleen artean. (Ikus 10. taula)

4.3.3 *Guaixeren* irakurleen profila

Sexuari dagokionez, *Guaixeren* irakurleen (Aztikerrek azken alea irakurri zutenak kontsideratu zituen irakurle) %53,4 gizonezkoa da, eta %46,6 emakumezkoa. Hortaz, sexu aldetik ez dago alde handirik. Adinari dagokionez ere *Guaixeren* irakurleagoa nahiko orekatua da. Zernahi ere, adinean aurrera egin ahala irakurleak gutxitzen doaz: irakurleen %36,9k 15-34 urte ditu, %34,8k 35-54 urte, eta %28,3k 55 urte baino gehiago. Bestalde, irakurlerik gehientsuenak Altsasu eta “Beste herriak” multzoko udalerrietakoak dira (hauetan irakurleen %62 bizi da) eta oinarrizko edota maila ertaineko ikasketak dituzte (hala ditu irakurleen %80k), eta ia erdiak besteren kontura dihardu lanean. (Ikus 11., 12. eta 13. taulak)


Aldagai soziolinguistikoei erreparatuta, irakurleen %68,7 euskaraz ongi moldatzen da (hauen artean euskal elebidunak, elebidun orekatuak eta erdal elebidunak leudeke), %24 elebidun hartzailea da (euskara ulertzea irits daiteke, baina ez daki hitz egiten, edo nekez hitz egiten du), eta %7,3 erdalduna. Hortaz, irakurleen %31,3k ez daki euskaraz, edo nekez moldatzen da. Ehuneko oso altua, kontuan harturik *Guaixe* soilik euskaraz irakur daitekeela. Irakurleek euskaraz irakurtzeko duten gaitasuna aztertuta, antzeko kopuruak antzeman daitezke: %65,5ak dio ondo irakurtzen duela euskaraz, %24k nekez irakurtzen duela, eta %10,5ak ez dakiela euskaraz irakurtzen. (Ikus 14. eta 15. taulak)



Iturria: Aztiker, *Guaixe-Beleixe: irakurleak eta iritziak*, 2011. Inkesta.

Irakurleen inguru soziolinguistikoari dagokionez, hamarretik lau inguru (%41,5) etxe euskaldunetan (alegia, denek euskaraz dakitenetan) bizi da, eta kide guztiak erdaldunak direnatan, berriz, %9,7. Gainontzeko guztiak euskaldunetara eta erdaldunetara osaturiko etxeak dituzte bizitoki. Eta etxeetan erabiltzen den hizkuntzari erreparatuta, azpimarratu behar da *Guaixeren* irakurleen etxeen %23,6an soilik euskaraz mintzatzen direla, eta %25,7an, berriz, soilik erdaraz. Tarteko erantzunetan, erdaraz euskaraz baino gehiago mintzatzen direnen multzoa nabarmentzen da (%21,1). (Ikus 16. eta 17. taulak)


Bestalde, nabarmendu behar da bezperan irakurleen %67,9k batez ere erdal telebistetara jo zuela, %21,1ak ez zuela telebistarik ikusi, eta %11k nagusiki edo soilik euskarazko telebista ikusi zuela. Halaber, azpimarratzeko modukoa da *Guaixeren* irakurleek gehien irakurtzen duten egunkaria *Diario de Noticias* dela (irakurleen %25,3k irakurri zuen bezperan). Ondoren *Gara* (%14,6) eta *Diario de Navarra* (%12,7) leudeke. *Berria* soilik %4,3k irakurri zuen bezperan. Gainera, 10etik 9 inguruk ez du *Guaixez* aparte bestelako euskarazko aldizkaririk jasotzen etxean. Horrek guztiak zera erakusten du, *Guaixeren* irakurleek ez dutela euskarazko komunikabideak kontsumitzeko ohitura handirik. Dena den, egia da irratia kasuan irakurleek ohitura gehiago dutela euskarazko kateak entzuteko, erdarazkoak entzuteko baino. (Ikus 18., 19., 20. eta 21. taulak)



Iturria: Aztiker, *Guaixe-Beleixe: irakurleak eta iritziak*, 2011. Inkesta.

4.3.4 *Guaixeri* buruzko iritzi orokorrak

Guaixe ondo baloratzeko arrazoiak eskatuta, ia irakurle guztiek bi zio aipatzen dituzte: gustura irakurtzen den aldizkaria izatea eta hurbileko berriak ematea, eta euskaraz izatea eta euskara sustatzea (lehenena %99,8k aipatzen du, eta bigarrena, aldiz, %99,4k). Bi arrazoi horien artean %19,7k euskara sustatzea lehenesten du, %18,2k Sakanako albisteak ematea, eta %62,1ek biak berdin baloratzen ditu. (Ikus 22., 23. eta 24. taulak)



Iturria: Aztiker, *Guaixe-Beleixe: irakurleak eta iritziak*, 2011. Inkesta.

Guaixek erabiltzen duen euskararen ulergarritasun mailari dagokionez, irakurleen hamarretik ia zazpik dio inolako arazorik gabe ulertzen duela astekariak darabilen euskara. Bestalde, %28k batzuetan ulertzeko zailtasuna adierazten du. Ulertzeko zailtasun gutxien gazteek dute, eta gehien 55 urtetik gorakoek. Halaber, etxean ohiko hizkuntza bezala euskara dutenak dira

Guaixeren euskara ulertzeko arazo gutxien dutenak. Dena den, azpimarratu behar da erdaraz bizi direnen %66,7k ez duela arazorik zentzu horretan. (Ikus 25., 26. eta 27 taulak)

Ildo editorialari buruzko iritziei dagokienean, nabarmendu behar da *Guaixe* plurala dela aldizkaria inoiz irakurri duten irakurleen %76,2rentzat. Alegia, lau irakurletik hiruk *Guaixe* pluralizat dauka. Irakurleen %10,8k, bere aldetik, uste du aldizkari lerratua dela. Horien artean gehienek Ezker Abertzalerantz lerratuta dagoela uste dute (%80 inguruk, hain zuzen). Era berean, irakurleen %58,1ek uste du norbere herriko udalaren inguruan objektibotasunez informatzen duela. Subjektiboa dela deritzotenen artean apur bat gehiago dira *Guaixe* udalaren aldekoa dela diotenak (%5), udalaren kontrakoa dela diotenak (%2,2) baino. Nolanahi, asko dira ez dakitela diotenak, %34,7 hain justu. (Ikus 28., 29. eta 30. taulak)

Astekariaren edukiei erreparatuta, irakurleek ongien baloratzen dituzten edukiak argazki bildumak eta argazki albisteak dira. Kontrako muturrean elkarrizketa luzeak eta erreportaje luzeak leudeke, irakurleen aldetik balorazio nahiko eskasa lortu dutenak. Irakurleei bereziki interesekoak egiten zaizkie tokikotasunarekin eta gizartearekin loturiko gaiak, eta politikakoak dira gutxien interesatzen zaizkienak. (Ikus 31. eta 32. taulak)

Bestalde, azpimarratzeko modukoa da Sakanako herritar gehienek *Guaixera* jotzen dutela bailarako albisteak jaso nahi dituztenean (bide hori %56,9k erabiltzen du). Xede horrekin gehien erabiltzen den hurrengo hedabidea *Diario de Navarra* da (%19,3), eta ondoren *Diario de Noticias* (%19,1). Hortaz, *Guaixe* bailarako informazio jasotzeko baliabide nagusia da, eta horrek erdaldun elebakar asko astekariaren irakurle izatea dakar. Artikulu gehienak ulertzen ez dituzten arren, Sakanako gaurkotasanaz jabetzeko duten modu nagusia *Guaixe* irakurtzea da, finean hau baita bailarako albisteetan zentratzen den hedabide bakarra. Horregatik kontsumitzen dute euskara hutsezkoa den astekaria. (Ikus 33. taula)



Iturria: Aztiker, *Guaixe-Beleixe: irakurleak eta iritzia*k, 2011. Inkesta.

Euskaldunak ez diren irakurleek *Guaixek* euskara eta tokikotasuna indartzeko balio duela deritzote, eta hori positiboki baloratzen dute. %99,2a Sakanan euskara sustatzen duen argitalpen bat edukitzeaz pozten da. Gainera, astekariak euskal kulturara hurbiltzen omen ditu (hala uste du irakurle erdaldunen %98,3k). Bestalde, %89,9k dio *Guaixe* irakurtzen ez jakiteak amorrua ematen diola, eta horrek euskara ikasteko gogoak jartzen dizkiola. Hortaz, euskaldunak ez direnei euskara hurbildu, eta beraz ikasteko arrazoiak ematen dizkie *Guaixek*. (Ikus 34., 35. eta 36. taulak)

Amaitzeko, *Guaixe* inoiz irakurri duten herritarrek batz bestea 8 bat ematen diote astekariari. Hauxe da erantzunen banaketa: inork ez dio 5ez azpiko notarik eman, %1,1ak 5 bat eman dio, %2,8ak 6 bat, %74,4k 7-8 arteko notarekin baloratu du, eta %24,7k 9-10 artekoarekin. Agerikoa da, beraz, irakurleak pozik daudela *Guaixek* egiten duen lanarekin. (Ikus 37. taula)

4.4 *Guaixeren* bazkideen profila eta iritziak, 2016


Nik burututako inkestaren emaitzak hiru ataletan banatuta aurkeztuko ditut. Lehenik, *Guaixeren* bazkideen profilari buruzko datuak eskainiko ditut, hainbat aldagai kontuan harturik (sexua, adina, ikasketak, lan egoera, hizkuntza gaitasuna, etxeetako egoera linguistikoa...). Ondoren, bazkideek *Guaixe* eta bestelako hedabideak kontsumitzeko duten ohiturari helduko diot, aurrena *Guaixe* jasotzen noiztik daramaten eta astekaria irakurtzen zenbat denbora pasatzen duten azalduz, eta ondoren gainontzeko hedabideen kontsumoari erreparatuz, batik batik kontuan harturik hedabide horiek euskarazkoak edo erdarazkoak diren. Eta azkenik, bazkideek aldizkariaren hainbat alderdiren inguruan dituzten iritziak hartuko ditut hizketagai. Arestian esan bezala, ehunekoak bi hamarrekorekin emango ditut, zehaztasuna irabazte aldera.

4.4.1 *Guaixeren* bazkideen profila

Guaixeren bazkideen profilari dagokionez, lehenik eta behin azpimarratu beharrekoa da galdekatutakoen %70 emakumezkoa dela, eta %30 gizonezkoa. Sexuari aldetik, beraz, alde handia dago. Egia da inkestak egiterakoan ez dudala kuoten sistema aplikatu, sexuaren araberrako oreka erdiesteko. Dena den, datu nahiko esanguratsua da, deiak ausaz eginikoak izaki, inkestatuen %70 emakumezkoa izatea. Bazkideen zerrendari begirada bat ematea aski da, ohartzeko emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago direla. Beraz, sexuaren araberrako bazkideen banaketa ez dator bat irakurleenarekin, Aztikerren txostenaren azterketan ikusi bezala, hauen kasuan gizonak apur bat gehiago baitira. (Ikus 38. taula)

Bestalde, nabarmentzeko modukoa da bazkideen ia erdiak, %47,14k hain zuzen, 35-54 urte artean dituela. Bazkide gehien dituen bigarren adin tartea 55 urtez gorakoa litzateke, bazkideen %40,29rekin. Azkenik, 15-34 urte arteko tartea izango genuke. Soilik bazkideen %12,57 sartuko litzateke tarte horretan. Kasu honetan ere bazkideen eta irakurleen artean alde handia dago. Izan


ere, irakurle aldetik tartetik garrantzitsuena 15-34 urte artekoa den bitartean, bazkide aldetik justu kontrakoa gertatzen da. Horren arrazoietakoa bat gazteak jada bazkide den norbaiten etxean bizitzea izan daiteke. Udalerri bakoitzeko datuei begiratuta, bazkide gazteen ehunekorik altuena Irurtzunek eta “Beste herriak” multzoak dute. Bertako bazkideen %20 inguru 15-34ko tartean sartzen da. Era berean, azpimarratzekoa da Irurtzongo, Arakilgo, Olaztiko eta “Beste herriak” multzoko bazkideen %50 baino gehiagok 55 urtetik gora dituela. (Ikus 39. taula)



Iturria: Guaixeren bazkideen profila eta iritziak, 2016. Inkesta.

Bazkideen ikasketei eta lan egoerari dagokionez, alde batetik, aipatu behar da %39,43k unibertsitate ikasketak dituela, %36k erdi mailakoak, eta %24,57k oinarrizkoak dituela, edota ikasketarik ez duela (irakurleen profila nahiko desberdina da aspektu honetan ere, hauen %80ak oinarrizko edota erdi mailako ikasketak baititu). Bestetik, irakurleen kasuan gertatu bezala, bazkideen gehiengoak (%48,57k) besteren kontura egiten du lan. Bigarren multzo nagusia pentsiodunena da, bazkideen %22,29rekin. Gainontzeko lan egoerak horrela leudeke banatuta: bazkideen %9,71 langabezia dago, %8,57 autonomoa da, %6 etxeko lanez arduratzen da, eta %4,86 ikaslea da. (Ikus 40. eta 41. taulak)

Astekariaren harpide edo bazkideen hizkuntza-gaitasunari erreparatuta, datu txundigarri batekin egin dut topo: normala den bezala, bazkide gehienak euskaldunak dira (%77,43), baina euskaraz ez dakien bazkideen kopurua oso da handia, %22,57koa, hain zuzen. Alegia, bost bazkidetik bat erdaldun elebakarra da. Horrek frogatzen du 2012an *Guaixek* astekarian doan banatzeari utzi zion arren, sakandar erdaldunek argitalpenarekiko konpromisoari eutsi diotela. Udalerri bakoitzeko banaketari dagokionez, hona hemen hainbat datu esanguratsu: Altsasun, Sakanako herririk handiengan, bazkideen %36,63 erdalduna da; Arakilen gehiago dira euskaraz ez dakiten bazkideak, euskaraz dakitenak baino (%60 eta %40, hurrenez hurren); bazkide euskaldunen proportziorik altuenak Ergoienak (bazkideen %100 da euskalduna), Etxarri-Aranatzek (%94,59), eta Arbizuk (%83,78) dituzte (kontuan izan behar da herri hauetan biztanle gehienak euskaldunak direla). (Ikus 42. taula)




Iturria: *Guaixeren bazkideen profila eta iritziak*, 2016. Inkesta.

Bazkideen etxeetako egoera linguistikoari dagokionez, hauen etxeetan batz-beste 3,15 pertsona bizi dira, eta horietatik 2,48k daki euskaraz, alegia, kideen %78,73k. Etxeetan erabiltzen den hizkuntzari dagokionez, %52,57k dio soilik euskaraz edo batez ere euskaraz mintzatzen direla, eta 36,86k, berriz, erdara darabiltela nagusiki edo soilik. Biak berdinduz erabiltzen dituztenak, bere aldetik, soilik %8,57 dira. Datu horiek guztiak ikusirik, azpimarratzekoa da *Guaixeren* bazkideek oro har ingurune euskalduna dutela etxean, nahiz eta zenbaitetan euskara jakiteak ez dakarren beronen erabilera (euskararen betiereko buruhaustea). (Ikus 43. eta 44. taulak)

Horrela, bada, honakoa litzateke *Guaixeren* bazkideen batz-beste profila: **emakumezkoa, 35-54 urte artekoa, erdi mailako edota unibertsitateko ikasketak dituenak, besteren kontura lan egiten duena, euskaraz dakiena eta etxean oro har inguru euskalduna duena.**

4.4.2 *Guaixeren* bazkideen hedabide kontsumoa


Hasteko, aipatzekoa da bazkideen %60k 10 urte baino gehiago daramatzala astekaria jasotzen. Horrek erakusten du *Guaixe* oso erroturik dagoela, eta bazkideek honekiko duten konpromisoa aspaldi sortua dela. Agerkaria jasotzen 10 urte baino gutxiago daramatenei dagokienez, %15,43 duela 5-10 urte hasi zen jasotzen, %17,71 duela 2-5 urte, eta %2,86 duela urtebete. Udalerrri bakoitzeko datuei erreparatuta, azpimarratzekoa da oro har kopuru orokorrekin bat datozela. Salbuespen bezala, “Beste herriak” multzoan, Olaztin eta Ergoienan *Guaixe* jasotzen 10 urte baino gehiago daramatenen ehunekoa %80ra igotzen da, eta Altsasun, berriz, %48ra jaitzi. (Ikus 45. taula)



Iturria: *Guaixeren* bazkideen profila eta iritziak, 2016. Inkesta.

Bestalde, bazkideen kopuru handi batek, %35,71k hain justu, astean 30 minutu baino gehiago eman ohi ditu astekaria irakurtzen. %26k 21-30 minutu igarotzen ditu, eta %24,86k, berriz, 11-20 minutu. Soilik bazkideen %12,57 jaisten da 10 minutuen mugatik. Hortaz, agerikoa da bazkideek *Guaixe* kontuan hartzen dutela eta interesekoa zaiela, denbora dezente ematen baitute agerkaria irakurtzen. Euskaraz ez dakiten bazkide askok aitortu didatenez, eduki gehienak ez dituzte ulertzen, baina saiakera egiten dutenez, eta ondoren argazkiak eta bestelakoak ikusten aritzen direnez, denbora dezente igarotzen dute astekaria begiratzen. Halaber, aipatu behar da bazkideen etxeetan kideen %82,44k irakurtzen edo gainbegiratzen duela *Guaixe*. Beraz, interesa ez du soilik bazkideengan sortzen, etxeko kide gehienengan baizik. (Ikus 46. eta 47. taulak)

Bestelako komunikabideak kontsumitzeko duten ohiturari dagokionez, alde batetik nabarmendu behar da bazkideen %80 inguruk egunkariak gutxienez astean behin irakurtzen dituela (%44,86k egunero, %14,57k astean hiruzpalau aldiz, eta %20,28k astean behin). Dena den, bazkideen %15,43k ez du egunkari bakar bat ere irakurtzen. Prentsa kontsumitzen duten bazkideen artean gehien irakurtzen den egunkaria *Diario de Noticias* da (%49,43k irakurtzen du), ondoren *Gara* dator (%36,86), eta hirugarren postuan *Berria* legoke (%26,86). Horrek zera erakusten du, *Guaixeren* bazkide izateak ez dakarrela *Berria* bezalako euskarazko egunkariak irakurtzeko ohitura edukitzea, egunkari hau lau bazkideetik batek irakurtzen baitu soilik. Udalerrri bakoitzeko egunkari kontsumoari begiratuta, datu orokorrekin bat ez datozen zenbait kasu daude. Esaterako, “Beste herriak” multzoan eta Olaztin *Gara* da bazkideen artean irakurriena, Urdiainen *Berria* eta *Gara*, eta Ergoienan *Berria* (honen kasuan aipatu beharrekoa da biztanleriaren %80 euskalduna duen udalerrri sakandar bakarra dela). (Ikus 48. eta 49. taulak)



Iturria: Guaixeren bazkideen profila eta iritziak, 2016. Inkesta.

Horretaz landa, oso azpimarragarria da *Guaixeren* bazkideen %81,14k, bostetik lau inguruk alegia, ez duela euskarazko bestelako aldizkaririk irakurtzen. Horrek, *Berriaren* kontsumo datuarekin batera, agerian uzten du bazkideek ez dutela euskarazko prentsa kontsumitzeko ohitura handirik. Horrela, bada, *Guaixek* egoera hori orekatzen laguntzen du, honi esker astero gutxienez euskarazko agerkari bat sartzen baita bazkideen etxean. Halaber, aipatzekoa da euskarazko bestelako aldizkariak irakurtzen dituztenen artean gehienek (%35 inguruk) *Argia* irakurtzen dutela. Beste irakurrienak *Aizu*, *Hik Hasi*, *Gaztetxulo* eta *Zazpika* lirateke. (Ikus 50. taula)



Iturria: Guaixeren bazkideen profila eta iritziak, 2016. Inkesta.

Telebista kontsumoari so eginez, nabarmendu behar da bazkideen %60,59k nagusiki edota soilik erdarazko kateak ikusten dituela. Erdarazko kateen eta euskarazko kateen artean alde handia dago. Izan ere, bakarrik bazkideen %14k lehenesten ditu euskarazko kateak. Bi kate moten artean kontsumo orekatua egiten dutenak %18 dira, eta %7,14k dio ez duela telebistarik ikusten.

Udalerriei erreparatuta, esanguratsua da biztanleriaren gehiengoa euskalduna den hainbat herritan, Etxarri-Aranatzen, Urdiainen edota Lakuntzan esaterako, bazkideek erdarazko kateak lehenesten dituztela. Haatik, Ergoienan euskarazko kateak lehenesten dituzte, alde handiz gainera: bazkideen %45,45ek euskarazko kateak ikusten ditu nagusiki edo soilik, kate erdaldunak lehenesten dituztenak %27,27 diren bitartean. (Ikus 51. taula)

Irratiaren kasuan, kontsumo datu orokorrak ez datoz telebistaren datuekin bat. Izan ere, telebistaren kasuan bazkide gehienek nagusiki erdarazko kateak ikusten dituzten bitartean, irratiarekin kontrara gertatzen da: %44,57k dio euskarazko kateak erdarazkoak baino gehiago entzuten dituela, eta horietatik %36,29k soilik euskarazkoak kontsumitzen dituela. Beste aldean erdarazko irratia entzuten dituztenak leudeke, bazkideen %24,29 direnak. Euskarazko eta erdarazko kateak kopuru berean entzuten dituztenak %10 dira. Halaber, asko dira irratirik entzuten ez dutela dioten bazkideak; %20,57, hain zuzen. Udalerrikako datuei dagokienez, azpimarratzekoa da kasu guztietan bazkideen %20k edo gehiagok soilik euskarazko irratia entzuten dituela. (Ikus 52. taula)

Hedabideen kontsumoari buruzko datuak ikusirik, agerikoa da *Guaixeren* bazkideek ez dutela ohitura handiegirik euskarazko komunikabideak kontsumitzeko. Ia euskarri guztien kasuan gehiago jotzen dute erdarazko komunikabideetara euskarazkoetara baino. Salbuespena irratia litzateke.

4.4.3 Bazkideek *Guaixeren* hainbat alderdiren inguruan duten iritzia

Irakurleekin gertatu bezala, bazkideei *Guaixe* ondo baloratzeko zioez galdetuta, Sakanako informazioa ematea eta euskara bailaran sustatzea aipatu dituzte ia guztiek (%99,42k eta %97,43k, hurrenez hurren). Bi arrazoi horien artean %20k uste du arrazoi garrantzitsuena *Guaixek* euskara sustatu eta normalizatzea dela; %10,86k Sakanako albisteak ematea lehenesten du; eta %68k bi arrazoiak berdinduz baloratzen ditu. (Ikus 53., 54. eta 55. taulak)



Iturria: *Guaixeren* bazkideen profila eta iritzia, 2016. Inkesta.

Udalerriei begiratuta, aipatzekoa da Altsasun bazkideen %47,12k euskara zabaltzea Sakanako albisteak ematearen aurretik jartzen duela, kontrako iritzia soilik bazkideen %5,76k duen bitartean. Horren arrazoi nagusietako bat Altsasu herri erdalduna izatea da (biztanleen %50 baino gutxiagok daki euskaraz). Izan ere, ingurune nagusiki erdaldun batean bizi direnez, bertako bazkideek balio handia ematen diote *Guaixek* euskara zabaltzen laguntzeari. Arbizu, Urdiain eta Lakuntzan kontrara gertatzen da: herri euskaldunak direnez, gehiago baloratzen dute *Guaixek* bailarako gaurkotasuna jorratzea, euskararen normalkuntza sustatzea baino.

Bestalde, nabarmendu behar da bazkideen %93,43k uste duela *Guaixek* euskara sustatzeko egiten duen lana ona edo oso ona dela (%48,57k ona dela kontsideratzen du, eta %44,86k oso ona dela). Lan hori eskastzat soilik bazkideen %1,14k jotzen du. Hortaz, bazkideek euskararen alde egiten duen lana aitortzen diote *Guaixeri*, berau aldizkaria ongi baloratzeko arrazoi garrantzitsu kontsideratzen dutelako, eta lan hori ontzat edo oso ontzat jotzen dutelako. (Ikus 56. taula)



Iturria: *Guaixeren* bazkideen profila eta iritziak, 2016. Inkesta.


Euskara sustatzeko egiten duen lan horretan sakonduz, alde batetik, bazkideen %81,15ek uste du *Guaixek* euskaraz irakurtzeko zaletasuna pizten duela. Soilik %9,71k deritzo astekariak horretarako gaitasunik ez duela. Jarrera hori dutenak %6-%10ren bueltan dabilta ia udalerriz guztietan. Salbuespena Urdiain eta Olazti lirateke, zeinetan *Guaixek* aipatu zaletasuna sortzeko balio ez duela dioten bazkideak dezente gehiago diren (%18,18 lehenengoan, %33,33 bigarreanean). Arakilen, bere aldetik, ez dago iritzi horretakoa den bazkiderik (%80k euskaraz irakurtzeko zaletasuna pizteko eraginkorra dela uste du, eta %20k ez du erantzunik eman). (Ikus 57. taula)

Bestetik, bazkideen %75,43 bat dator esaterakoan *Guaixe* arnagune gisa garrantzitsua dela inguru erdalduna duten elebidunentzat. Hau da, lautik hiru iritzi horretakoa da. Horien artean %59,72 ados dago aipatu baieztapenarekin, eta %15,71, aldiz, oso ados. Soilik bazkideen %6k

uste du *Guaixek* ez duela arnagune izaera hori. Halaber, esanguratsua da bazkideen %18,57k gai honen inguruan ez duela iritzirik eman nahi izan, edo ez duela erantzuten jakin. Bestalde, aipatzekoa da proportzionalki Urdiain dela astekariak arnagune gisa balio ez duela deritzoten bazkide gehien dituen udalerrria (bazkideen %18,18 da iritzi horretakoa). Ondoren Etxarri-Aranatz (%10,81), “Beste herriak” multzoa (%7,14) eta Altsasu (%5,76) leudeke. Ergoiena eta Arakilen, beren aldetik, bazkide guzti-guztiekin uste dute *Guaixe* garrantzitsua dela inguru erdalduna duten euskaldunentzat. (Ikus 58. taula)

Horrez gain, bazkideen %73,14k deritzo aldizkariak euskara hurbiltzen diela erdaldun elebarkari. Hortaz, gehiengo zabal bat uste horretakoa da. Dena den, aipatzekoa da bazkideen %18,57k (ia bostetik batek) ez duela uste *Guaixek* gaitasun hori duenik. Hainbat udalerritan ehuneko hori dezente altuagoa da, Urdiainen (%31,82), Olaztin (%27,78), Ergoienan (%27,27) edota Arbizun (%27,03), kasu. Nolanahi, bazkide kopuru aldetik udalerrri garrantzitsuenak diren Altsasun eta Etxarri bazkideen hiru laurdenak baino gehiagok uste du *Guaixe* erdaldunak euskarara hurbiltzeko tresna eraginkorra dela. (Ikus 59. taula)


Bestalde, *Guaixek* euskararen erabileraren inguruan kontzientzia pizteko balio duela deritzo bazkideen gehiengoak (%71,99k). %13,16 ez dago horrekin ados, eta %14,85ek ez du gai honen inguruko iritzirik eman. Horretaz landa, bazkideen %73,43aren aburuz *Guaixek* euskara ulertteraza erabiltzen du, %21,43k astekariaren hizkera ulertzea kosta egiten zaiola aitortzen duen bitartean. Beraz, bazkideen gehiengoari ulergarria egiten zaio, baino batzuetan ulertzen zaila dela uste duen bazkide kopuruari ezin zaio entzungor egin, esan bezala, %20 ingurukoa baita. Esanguratsua da bazkide guztiak edo ia guztiak euskaldunak diren zenbait udalerritan oso altua dela *Guaixe* ulertzeko zailtasunak dituzten bazkideen ehunekoa, hala nola, Arbizun (%40,54), Urdiainen (%36,36) eta Ergoienan (%36,36). (Ikus 60. eta 61. taulak)



Iturria: *Guaixeren* bazkideen profila eta iritziak, 2016. Inkesta.

Hortaz, ikusitakoak ikusita, bazkide gehienek uste dute *Guaixek* euskararen normalizazioari hainbat aspektutan egiten diola mesede: euskara ulertterraza erabiliz euskaraz irakurtzeko zaletasuna pizten du, inguru erdalduna duten euskaldunentzat arnagune lez balio du, euskara hurbiltzen die erdaldun elebakarrei, eta euskara erabiltzearen garrantziaz kontzientziatzen du. Edonola ere, kontuan hartzekoa da bost bazkideetik batek uste duela batzuetan *Guaixeren* euskara ulertzea kosta egiten dela, eta astekariak ez duela balio erdaldunak euskarara hurbiltzeko. Ulergarritasunaren inguruan, dena den, nabarmendu behar da bazkideen %33,43k diola *Guaixe* hasieran baino errazago ulertzen duela, okerrago ulertzen duela soilik %2,86k dioen bitartean. %60,57k, bere aldetik, zentzu horretan aldaketarik ez duela nabaritu dio.

Euskara sustatzeko lanetan eraginkorragoa izateko *Guaixeri* emango lizkioketen aholkuez galdetuta, batzuek euskara tekniko eta jaso alboratu beharko litzatekela diote, beste batzuen aburuz euskalkiei tarte txikiagoa eskaini beharko litzaielako bitartean. Zernahi ere, aipatzekoa da bazkideen %46k aldizkarian euskalkiek presentzia gehiago izatean nahi duela, kontrako iritzia dutenak %37,71 direlarik. Lehenengo aburuz, euskalkiei leku gehiago eskaintzeak *Guaixe* gertukoagoa eta erakargarriagoa egingo luke. Besteek, ordea, horrek ulertzeko zailtasunak sortuko litzatekela diote, esanez bereziki euskaldunberriek eta euskara maila apala dutenek gauza asko ez litzatekela ulertuko. (Ikus 62. taula)



Iturria: *Guaixeren* bazkideen profila eta iritziak, 2016. Inkesta.

Udalerrien artean, oro har, bi joera nabarmentzen dira. Euskalkia duten udalerrietan, Etxarrin, Arbizun, Urdiainen edota Ergoienan esaterako, bazkide gehienak *Guaixen* euskalkiek toki gehiago izatearen aldekoak dira. Euskalkirik gabeko herrietan (Altsasun, Uharte-Arakilen edota Olaztin, kasu), aitzitik, gehiago dira euskalkiei presentzia handiagoa emango ez lieketenak.

Ildo editorialaren inguruko iritziei dagokienez, azpimarratzekoa da bazkideen %72,86ren iritziak *Guaixe* aldizkari plurala dela. Irakurleen kasuan ehuneko hori apur bat altuagoa da; %76,2koa hain zuzen. Dena den, agerikoa da ez garela alde handi batez ari. *Guaixe* lerratutzat ikusten duten

bazkideak %13,71 dira, irakurleen kasuan ehuneko hori hiru puntu baxuagoa den bitartean. Hortaz, esan daiteke oro har *Guaixeren* bazkide eta irakurleek berau aldizkari plural eta zabal gisa ikusten dutela. (Ikus 63. taula)

Edukiei erreparatuta, bazkideen %65,71k dio ez zaiola atal bat espreski gustatzen; alegia, astekaria orokorrean gustatzen zaiola. Horien esanetan, astekaria hartzean ez dute soilik atal bat irakurtzen, irakurketa orokor bat egiten dute, eta dena gustatzen zaie. Horrek zera erakusten du, bazkide gehienentzat *Guaixe* aldizkari interesgarria dela bere osotasunean. Bestalde, aipatzekoa da bazkideen %8,87rentzat kirol atala dela interesgarriena, %7,14rentzat Sakanerria (herrietako albisteak), %6,57rentzat kultura atala, eta %5,71rentzat 11 galdera (kontraportadan datorren elkarrizketa). (Ikus 64. taula)

Azkenik, *Guaixeri* 0tik 10era bitarteko puntuazio bat emateko eskatuta, bazkideek batz bestea 8 bat eman diote, irakurleek emandako nota bera. Beraz, bazkide nahiz irakurleek agerkaria “oso ongi” batez baloratzen dute. Bazkideen datuetan sakonduz, notarik onenak “Beste herriak” multzoan (8,2), Etxarri-Aranatzen (8,19) eta Ergoienan (8,1) jaso ditu, okerrenak Uhartearakilen (7,86) Lakuntzan (7,77) eta Arakilen (7,5) eman dizkioten bitartean. Agerikoa da, hortaz, herri guztietan balorazio oso ona jaso duela. Bazkideek Sakanako gaurkotasuna jorrazteko eta euskara sustatzeko egiten duen lana aitortzen diote, eta nota horiek guztiek aitortza hori irudikatzen dute. (Ikus 65. taula)

5. ONDORIOAK

Ikerketarekin amaitzeko, lanaren hasieran (1.3 atalean) zehaztutako hipotesiak betetzen diren edo ez egiaztatuko dut:

- a) *H1: Guaixeren helburuen artean garrantzitsuenetariko bat da euskararen normalizazioan eragitea. Hala izan zen bere hastapenetan, eta hala da gaur egun ere* → Betetzen da. *Guaixeko* erredaktore buru Alfredo Alvarok azaldu duenez, agerkariaren hasierako helburuak Sakana bailara gisa kohesionatzea eta euskararen normalizazioan eragitea ziren. Bere esanetan, proiektuaren sortzaileek *Guaixe* Sakanan euskarazko komunikabide bat txertatzeko aukera bezala ikusten zuten. Gainera, kontuan hartzekoa da aldizkaria sortu eta gutxira Bierrik elkartea sortu zutela, proiektua kudeatu eta euskara zabaltzen laguntzeko. Hortaz, agerikoa da euskararen zabalkundea *Guaixeren* ardatz nagusietako bat izan zela hasierako urteetan. Eta Alvaroren esanetan, gaur egun ere sutuki ari dira euskararen alde lanean, besteak beste, Sakanako euskaldungoa trinkotzen eta euskararen eta erdaldun elebakarraren artean dagoen distantzia murrizten saiatuz. Beraz, euskararen normalizazioan eragiteak *Guaixeren* helburu nagusietako bat izaten jarraitzen du.

Bazkideen iritziz, astekariak aipatu xedea ondo baino hobeto betetzen du. Izan ere, harpide gehien esanetan *Guaixek* euskaraz irakurtzeko zaletasuna pizten du, euskara erabiltzearen garrantziaz kontzientziazten du eta erdaldunak euskarara hurbiltzen ditu. Horrek Alvarok esanikoa baieztatzen du; alegia, agerkariak euskararen alde lan eskerga egiten jarraitzen duela.

- b) *H2: Guaixek bestelako euskarazko produktuak irakurtzeko akuilu lana egiten du. Horretarako euskara ulertterraza eta gertukoa erabiltzen du, euskaraz irakurtzea atsegina suerta dakion irakurleari* → Betetzen da. Alde batetik, kontuan hartzekoa da Sakanako Itsasi euskaltegian *Guaixe* euskarazko komunikabideak kontsumitzeko ohitura sortzeko helburuarekin erabiltzen dutela, horretarako hedabide oso egokia delakoan. Bertako irakasle Patxi Flores eta Idoia Artiedaren arabera, *Guaixe* irakurtzea atsegina da, gertuko albisteak eskaintzen dituelako euskara erraz batez azalduz, eta horrek ikasleak euskarazko beste hedabide batzuk kontsumitzera animatzen omen ditu.

Bestalde, aipatu behar da *Guaixeren* bazkideen %81,15ren aburuz astekariak euskaraz irakurtzeko zaletasuna pizteko balio duela. Soilik %9,71k uste du *Guaixek* ez duela horretarako gaitasunik. Eta astekariaren ulergarritasunari dagokionez, lau bazkideetik ia hirurentzat euskara ulertterraza erabiltzen du. Irakurleen kasuan, hamarretik ia zazpik dio inolako arazorik gabe ulertzen duela *Guaixek* darabilen euskara. Beraz, hasieran esan bezala, H2 hipotesia betetzen da. Dena den, kontuan hartzekoa da bazkideen %21,43rentzat eta irakurleen %28rentzat astekariaren euskara batzuetan ulertzen zaila izaten dela.

- c) *H3: Guaixeri esker erdaldunak euskararen munduak barneratzen dira. Aldizkariari esker euskara gertuagoko zerbait bezala ikusten dute* → Betetzen da. Hori frogatzen duten hainbat baieztapen eta datu daude ikerketan emandako urratsetan. Lehenik eta behin, Alfredo Alvarok azaldu du *Guaixek* hasierako urteetatik daramala erdaldun elebakarrak euskarara hurbilduz, astekariaren irakurle dezente (%7,3 hain zuzen) erdaldunak direla argudiatuz. Baina zergatik irakurtzen dute euskara hutsezkoa den agerkari bat? Bada, Alvaroren aburuz, berau Sakanako informazio lortzeko modu ia bakarra delako. Honek gaineratzen duenez, *Guaixe* euskara ikasten hasteko akuilu izan daiteke, albisteak ez ulertzeak erdaldunak euskaltegi batean apuntatzera motiba baititzake.

Bigarrenik, nabarmentzekoa da, Aztikerren txostenean azaltzen denez, *Guaixeren* irakurle erdaldunen %98,3ren aburuz astekariak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzen dituela. Horrez gain, %89,9ek dio *Guaixe* irakurtzen ez jakiteak amorrazioa ematen diola, eta horrek euskara ikasten hasteko gogoak jartzen dizkiola. Bestalde, bazkideen %73,14 ados edo oso ados dago H3 hipotesiarekin.

- d) *H4: Guaixe ondo baloratzeko hainbat arrazoi daude. Horien artean nagusietako bat euskararen alde lan egitea da* → Betetzen da. Irakurleek *Guaixe* ondo baloratzeko bi arrazoi aipatzen

dituzte: Sakanako berriak ematea, eta euskara sustatzea. Lehena %99,8k aipatzen du, eta bigarrena %99,4k. Bazkideekin gauza bera gertatzen da: aldizkaria ondo baloratzeko arrazoiak eskatuta, Sakanako gaurkotasuna jorratzea eta euskara zabaltzen laguntzea aipatzen dituzte ia guztiek (%99,42k eta %97,43k, hurrenez hurren).

- e) *H5: Guaixeren irakurleek euskarazko komunikabideak kontsumitzeko ohitura gutxi dute* → Betetzen da. Alde batetik, azpimarratzekoa da *Guaixeren* irakurleek gehien irakurtzen dituzten egunkariak *Diario de Noticias*, *Gara* eta *Diario de Navarra* direla. *Berria* laugarren postuan legoke, aipaturiko hiru egunkarien kontsumo kopuruetatik urruti. Telebista kontsumoari dagokionez, bezperan irakurleen %67,9k batik bat erdal telebistetara jo zuen. Hortaz, agerikoa da irakurleek euskarazko komunikabideak kontsumitzeko ohitura eskasa dutela. Salbuespena irrati kontsumoa litzateke. Izan eren, irratia nagusiki edo soilik euskaraz entzuten dutenak %37,2 dira, erdaraz entzuten dutenak %12,9 diren bitartean.

Bazkideen kasuan ere antzeko zerbait gertatzen da. Egia da *Berria* hauen artean irakurriagoa dela, baina ez da irakurriena inondik inora (hirugarren postuan dago, *Diario de Noticias* eta *Gararen* atzetik). Horretaz landa, bost bazkideetik lauk ez du *Guaixez* aparte euskarazko bestelako aldizkaririk irakurtzen. Hori gutxi balitz, %60,59k dio erdarazko telebista kateak ikusten dituela nagusiki edo soilik (datu honetaz hitz egiterakoan ezin daiteke aipatu gabe utzi Sakanako hainbat lekutan ETB1 ikusteko arazoak daudela). Salbuespena kasu honetan ere irratia kontsumoa dugu, gehiago baitira euskarazko irrati kateak entzuten dituzten bazkideak, erdarazkoak entzuten dituztenak baino.

Gauzak horrela, euskarazko komunikabideak kontsumitzeko ohitura gutxi egoteak *Guaixek* euskararen normalkuntza begira duen garrantzia areagotzen du, etxe askotan aldizkari hau baita irakurtzen den euskarazko agerkari bakarra. *Guaixe* ezinbestekoa da sakandarren etxeetan euskarazko prentsaren eta, oro har, euskarazko komunikabideen presentzia minimo bat bermatzeko.

- f) *H6: Guaixe komunikabide plural bezala hartua da. Alegia, ez da uste alderdi jakin baten alde egiten duenik* → Betetzen da. Irakurleen %76,2k *Guaixe* aldizkari pluralizat du. Soilik %10,8k uste du lerratua dela. Bazkideen kasuan datua nahiko antzekoa da: bazkideen %72,86ren iritziz anitza da, eta %13,71rentzako, berriz, lerrokatua. Beraz, irakurleen eta bazkideen gehiengo zabal batek uste du *Guaixe* aldizkari anitza dela. Sakanako komunitatea kohesionatzeko eta euskara sustatzeko lanetan eraginkorra izateko funtsezkoa da pluralizat hartua izatea. Izan ere, horrek gizartearen zati zabal batengana iristeko aukera eskaintzen du, lerratua izanda ezinezkoa litzatekeena.
- g) *H7: Guaixeren hartzeileek oso ondo baloratzen dute Guaixe orokorrean eta astekariak euskara sustatzeko egiten duen ekarpena* → Betetzen da. Irakurleek batz best 8 bat ematen diote,

bazkideek bezalaxe. Bestalde, bazkideen %93,43k uste du *Guaixek* euskara sustatzeko egiten duen lana ona edo oso ona dela. Lan hori eskas gisa soilik %1,14k kontsideratzen du. Beraz, hartzaileak oso pozik daude *Guaixerekin* eta honek euskara zabaltzeko egiten duen lanarekin.

Horrenbestez, hipotesi orokorra (HO) oso-osorik betetzen dela esan daiteke: *Guaixeren* eginkizun nagusietako bat euskararen normalizazioan eragitea da. Zeregin horretan eraginkorra dela esan daiteke, besteren artean, euskaraz irakurtzeko zaletasuna pizten duelako eta erdaldun elebakarrak euskararen mundura gerturatzeko dituelako. Hartzaileek lan hori aitortu egiten diote aldizkariari: berau ondo baloratzeko zio garrantzitsuenetako bat bezala jotzen dute euskara zabaltzeko egiten duen lana, ona edo oso ona dela kontsideratzen dutena.

BIBLIOGRAFIA

- Aiestaran Yarza, A. (2009). "Herriko informazioa: kazetarion probaleku eta eskola". T. Ramirez de la Piscina en, *Kazetari aditua unibertso digitalean* (or. 33-52). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Aiestaran Yarza, A. (2010). "Euskarazko herri-prentsaren irakurleen profila aztergai". *Uztaro*(74), 59-72.
- Aranguren, A. (1999). *Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian*. Doktore tesi argitaratu gabea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
- Arantzabal Arrieta, I. (2008). "Tokiko hedabideek etorkizun handia dute". *BAT soziolinguistika aldizkaria*(68), 103-114.
- Arruti Landa, I. (2003). "Tokiko hedabideen garrantzia euskararen erabileran eragiteko". Erabili.eus. http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1069088711_helbidean_eskuragarri
- Askoren artean. (2005). *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*. EHUko argitalpen zerbitzua.
- Aztiker (2011). *Guaixe-Beleixe. Irakurleak eta iritziak, 2011*.
- Camacho Markina, I. (2002). "Euskarazko herri-aldizkarien funtzioak hirugarren milurtekoaren atarian". *Uztaro*(43), 67-85.
- Camacho Markina, I. (2004). "Hurbileko informazioaren definizioa eta funtzioak. Euskarazko herri aldizkarien azterketa". *Mediatika*(10), 199-216.
- Díaz Noci, J. (1998). "Los medios de comunicación y la normalización del euskera: balance de dieciséis años". *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 2(43), 441-459.
- Elkoroberezibar, M. (1992). "Prensa lokala Euskal Herrian". *Jakin*(69), 11-30.
- Gonzalez Gorosarri, M. (2006). "Euskarazko tokiko hedabideen kalitatea". *Uztaro*(59), 41-61.
- Irizar, M. (2003). "Herri aldizkariak: balantzea eta etorkizuneko erronkak". *BAT soziolinguistika aldizkaria*(48), 56-65.
- Muñozguren, F. (1997). "Eremu urriko euskal prentsaren bideetan barrena". *Jakin*(103), 73-79.
- Muxika Arrieta, J. (2000). "Euskarazko idatzitako komunikabide lokalen egoera". *Eleria: Euskal Herriko legelarien aldizkaria*, 125-130.
- Narbaiza, B., & Berriozabal, M. (2013). "Tokiko telebistak leku bila". *Jakin*(194/195), 97-106.
- Tokikom. (2013). *Euskal hedabideen etxea, tokikoen ikuspegitik*.
- Zalakain, J. (1994). "Prensa nazionala eta prentsa lokala". *Uztaro*(12), 55-65.

ERANSKINAK

Kronograma

Azaroa	<ul style="list-style-type: none"> - Gradu Amaierako Laneko zuzendariarekin harremanetan jarri nintzen. Honek lanaren nondik norakoak azaldu zizkidan. - GRALaren lehen proposamena taxutzen hasi nintzen.
Abendua	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzendariari GRALaren lehen proposamena bidali nion. - Honek zenbait zuzenketa bidali zizkidan. Zuzenketa horiek hasierako proposamenari txertatu nizkion.
Urtarrila	<ul style="list-style-type: none"> - Marko teorikoari begira informazioa bilatu eta irakurtzeari ekin nion.
Otsaila	<ul style="list-style-type: none"> - Marko teorikorako informazioa bilatzen eta irakurtzen jarraitu nuen.
Martxoa	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzendariarekin bigarren bilera izan nuen. - Abenduan osatutako lehen proposamena garatzen hasi nintzen. - Marko teorikorako informazioa aztertzen jarraitu nuen. - Metodologiari begira zenbait galdetegi prestatu nituen.
Apirila	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzendariarekin hirugarren bilera izan nuen. - <i>Guaixeko</i> erredaktore burua eta Altsasuko euskaltegiko bi irakasle elkarrizketatu nituen. - Aztikerren inkesta aztertu nuen. - Nire inkestaren galdetegia eta lagina finkatu nituen. - Marko teorikoaren lehen bertsioa idatzi nuen. - Inkesta: bazkideei telefonoz deitzen hasi nintzen (apirilaren 28an).
Maiatza	<ul style="list-style-type: none"> - Inkesta: deiekin bukatu nuen (maiatzaren 7an). - Marko teorikoa zuzendu nuen, zuzendariak hainbat aldaketa proposatu ostean. - Inkestaren emaitzak aztertu eta landu nituen. - Zuzendariarekin laugarren bilera izan nuen. Lanaren azken txanpaz solastu ginen. - Metodologiaren atala idatzi nuen. Behin bidali eta zuzendariak irakurrita, honek proposatutako zuzenketak txertatu nituen. - Falta zitzaizkidan atalak idatzi, eta zuzendariari bidali nizkion. Ondoren, honen zuzenketak txertatu nituen. - Azken bertsioa berrikusi, eta zuzendariari bidali nion.

Guaixeko erredaktore buru Alfredo Alvarori eginiko elkarrizketa

Zer helburu zituen bere hastapenetan Guaixek? Euskararen normalizazioa aldizkariaren helburuetako bat zen?

Proiektua Amaia Amilibiak, Aitziber Etxaizek eta Olatz Irizarrek abiatu zuten, unibertsitatean zeudela. Urte haietan euskarazko tokiko prentsaren booma ari zen jazotzen, eta ikusi zuten aukera zegoela boom horretara batu eta Sakanan tokiko argitalpen bat sortzeko. Beraientzako aukera ona zen lan egiten asteko, baina ez hori bakarrik: euskaraz lan egiteko eta euskarazko produktu bat Sakanara eramateko aukera ere bazen. Hortaz, euskara sustatzeko helburua hasiera hasieratik dago *Guaixeren* DNAn txertaturik. Lehenik eta behin Bierrik elkartea sortu zuten, zeinaren helburu bakarra ez zen agerkaria kudeatzea: kultura eta euskara sustatzeko tresna ere izan nahi zuen. Besteak beste, euskalkien inguruko azterketak eta tribial bat (GaldeSakan) egin zituzten, baita liburu batzuk argitaratu ere. Euskara, beraz, elkartearen eta argitalpenaren ardatza izan zen hasierako urte haietan. *Guaixeren* beste helburua Sakanako gaurkotasuna jorratuz bailara kohesionatzea zen. Bi helburu horiek gaur egun bere horretan darraitela esan daiteke.

Zer estrategia jarri ziren martxan euskararen sustapena lortzeko?

Lehenik eta behin, produktua ezagutzera ematea. 1994ko abenduan argitaratu zen hilabetekariaren lehen alea. Udaberrian mahai-inguru bat egin zen, zeinetan hainbat euskal kazetarik hartu zuten parte. Ondoren hilabetekaria errotzeko beste zenbait ekimen eginez joan ginen. Herri bakoitzean zeuden euskaldunak zerrendatzea tokatu zitzaigun, jakiteko nora eta nori eraman *Guaixea*. Horrela hasi ginen agerkaria banatzen.

Behin hilabetekariaren zutabeak jarrita, eta Sakanan behar bezala errotuta, bazkidetza kanpaina bat egin genuen, ikusi baikeuen bazkideak izatea komenigarria zela. Kanpaina oso xumea izan zen, denbora askoan 300-400 bazkide lortu genituen. Kopuru txikia da, baina oinarri polita izan zen garai haietarako.

Lehen urte haietan somatu zen aldizkariak eragina zeukala bailaran euskarak presentzia handiagoa izatean?

Txikia nintzenez, oroitzen dut amonaren etxean *Principe de Viana* aldizkaria egoten zela, Nafarroako Gobernuak euskaraz argitaratzen zuena. Hura nobedade handia izan zen, euskarazko aldizkari oso gutxi baitzeuden. Helduentzako bakarrik aipaturiko *Principe de Viana* zegoen, eta haurrentzako *Kilikili*, gero *Ipurbeltz* bilakatuko zena. Oroitzen dut oso gauza arraroa zela helduei zuzenduriko euskarazko aldizkari bat aurkitzea.

Gauzak horrela, modu berean harritu ninduen *Guaixe* hainbat sektoretako pertsonak, erdaldunek kasurako, irakurtzen zutela ikusteak. Edota euskaraz irakurtzeko batere ohiturarik ez zuten pertsonak. *Guaixek* lortu zuen euskara toki berrietara eramatea. Eta hori harrigarria

suertatu zitzaidan. *Guaixe* ez balego, pertsona horiek nekez irakurriko zuten euskarazko argitalpen bat, eta nekez jarriko ziren harremanetan euskararekin.

Hemengo informazioa soilik euskaraz jaso ahal izateak hori dakar, ezta?

Bai. Guri maiz esaten digute ea zergatik ez dugun gaztelania ere erabiltzen. Guk, ordea, garbi dugu zein den gure izaera, eta zeintzuk diren gure helburuak. Gaztelaniaz jaso nahi dutenek hor dituzte *Diario de Noticias* eta bestelakoak. Noski, Sakanako informazioa guk zabalago, eta batzuetan sakonago jorratzen dugu. Orduan, informazio hori jaso nahi duena euskaraz irakurtzera dago derrigorturik, eta hori euskara sustatzeko ekintza oso garrantzitsua da. Gaztelaniaz ere idatziko bagenu, azkenean jende askok gaztelaniazko artikuluetara joko luke soilik, eta euskara zabaltze aldera eraginkortasuna galduko genuke.

Erdaldunek gauza asko ez dituzte ulertuko, baina behintzat ulertzeko ahalegina egiten dute, titularrak eta argazki onak irakurtzen dituzte, eta piskanaka trebatzen joaten dira. Gero, maiz esaten didate euskaraz ez dakiten adinekoek santuak eta begiratzen dituztela, eta interesatzen zaien zerbaite ikusten dutenean seme-alabei edota bilobei eskatzen dietela zer jartzen duen azaltzeko. *Guaixeko* albisteak Google Translator-en itzultzen duenik ere bada!

Guaixek inzidentzia hori badu, euskarazko irakurketa eta ulermena ematen baita. Eta gero edukiak zeresana ematen du. Jendeari interesgarria dela iruditzen zaio. Horrek jendeak jakinmina izatea dakar. Horrela, euskara ez dakitenek estrategia desberdinak baliatzen dituzte aldizkariak dakarrena ulertzeko.

Hortaz, garbi duzu *Guaixek* erdaldun elebakarrak euskarara hurbiltzen dituela.

Bai. Sakanan 20.000 bat pertsona izango gara, horietatik 8.000 euskaldun, beste 2.000 euskara jakin bai baina hitz egiten ez dutenak. Demagun erdi eta erdi gaudela (erdia euskaldunak eta erdia erdaldunak). Gero badaude euskara modu batean edo bestean jasotzen duten erdaldunak: euskara ikasten hasi eta utzi dutenak, ingurukoak euskaldunak dituztenak... eta *Guaixe* irakurri edo behintzat gainetik begiratzen dutenak. Erdaldunak dira, baina euskararekin kontaktu hori dute. Euskara kontsumitzen dute, eta hori oso garrantzitsua da. Argazkiak, titularrak eta bestelako elementuak ikusita jada euskara barneratzen ari zara. Eta, gainera, *Guaixe* akuilu izan daiteke euskara ikasten hasteko. Badago jendea amorrua ematen diona albisteak ez ulertzeak. Beraz, horrek euskaltegian apuntatzera motiba dezake. Motibagarriak mila gauza izan daitezke, eta uste dut *Guaixe* horietako bat dela.

Eta euskaraz dakitenentzako arnagunea ere bada?

Bai. Nik uste dut *Guaixek* Sakanako euskaldungoa trinkotzeko balio duela. Komunitatea sendotzeko, alegia. Eta hori oso agerikoa da. Nire ustez Sakanan orokorrean euskaldunek ibar kontzeptu gehiago dute, erdaldunek baino. Guk horretan gure aletxoak jarri dugu. *Diario de*

Noiciasek bere orritxo horrekin ere komunitatea egiten du. Eta krisiak ere komunitate sentimendua asko handitu du.

Guaixek baita balio du euskaldunek elkar identifikatzeko. Asko harritu egiten dira pertsona batek euskaraz dakiela konturatzean. Eta arnasmune izaerari dagokionez, garbi dago euskara hutsean ari garen heinean jendeari aukera ematen diogula euskara bere egunerokotasunean txertatzeko.

Urteen joanarekin batera euskara sustatzeko estrategiak aldatzen joan zarete?

Aldaketak batez ere teknologien harira etortzen dira. Euskara sustatzeko, eta orokorrean proiektua aurrera ateratzeko estrategiak teknologia eta baliabide berrien eskutik joan dira aldatzen. Hasieran *Guaixe* paperezko hilabetekari bat zen. Ondoren irratia proiektuari ekin genion. Alabaina, hor arazo bat bagenuen: hilabetekarian gauzak zaharkituta gelditzen ziren, eta irratian edukiak haizeak eramaten zituen. Horrela, indarrak astekari bat sortzeko proiektuan metatu genituen. Urte haietan tokiko prentsan hilabetekariak astekari bihurtzeko joera zegoen, eta gu ere olatura batu ginen. Hasieran hilabetekaria eta astekaria, biak egin genituen, baina azkenean soilik astekaria mantendu genuen.

Eta halako batean, internet iritsi da, eta honekin batera makina bat aukera. Ez dugu nahiko genukeen guztia lantzen, baina aukera pila eskaintzen ditu: online elkarrizketak egitea, komunitatearen txokoa sortzea... Azken honek oraindik ez du indar handirik, baina tira, ari gara pixkanaka garatzen. Hau ere komunitatea sortu eta trinkotzeko tresna oso egokia da. Jendeak bertako gaien inguruan idazten du, eta euskaraz. Hori beste urrats bat da, hartzaileak ekoizle bihurtzea. Komunitatea asmo horrekin sortu zen. Nahi duguna da jendeak webgunean parte hartzea, eta parte hartzea hori euskaraz izatea. Webgunea eta interaktibitatea oraindik asko hobetu behar ditugu, baina pixkanaka ari gara urratsak ematen.

Zein da erabiltzen duzuen hizkuntza eredua?

Euskara batua erabiltzen dugu, baina Sakanako euskaraz bustita. 90eko hamarkadan Bierrekek lan handia egin zuen euskalkien inguruan. Orduan arautu zen euskalkiak nola idatzi, baina idazketa oso fonetikoa zen. Gaur egun euskalkia erabiltzen saiatzen gara, baina garbi dugu oinarria batua dela, eta ez alderantziz. Bakarrik herri bat balitz, edo euskalki bakarra balego, askoz ere leku gehiago emango genioke euskalkiari. Hemen, ordea, euskalki ezberdinak daude, eta elkarren artean aski desberdinak dira. Eta nik adibidez Etxarrikoa idatzi dezaket, baina Urdaingoa ez. Nahiko genuke nolabaiteko euskalki estandar batez idaztea, pixka bat homogeneizatzeko, baina oso zaila da.

Uste duzu egun Guaixek eragin handiagoa duela euskararen normalizazioan lehen urte haietan baino?

